

...eta  
**K**ittoa!

2016-11-19

962 zkia.



**Kalitatezko  
zerbitzuaren alde**

**EUKi**  
ASEGURUAK

**AURREZTU ZURE ASEGURUAN  
GALDETU GURE ESKAINTZARI BURUZ!**

**AUTO ASEGURUA**  
MOTORRA EDO FURGONETA  
... BAITA QUAD-A,  
AUTOKARABANA, KAMIOIA,  
BURU TRAKTOREA,  
AUTOBUSA, ATOIAK...

**AUTO  
ASEGURU  
ESKAITZA**

Informazio gehiago: [eukiseguros.com](http://eukiseguros.com)

# gremioen gida



## ANTENAK

## AROTZAK

## ELEKTRIZITATEA

**BALATZ** c.b.  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista  
Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

**EDER**  
**ateak**  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...  
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI - GILTZEN KOPIAK  
EBANISTERIA - ERAKUSKETA iraner  
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)  
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.  
Ego Gain, 9 ac 677 51 24 62  
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45  
943 20 06 97

Antena instalazioak  
TDT / Satelitea  
Informatika Zerbitzua  
Sareak /Antibirusa  
Sistema Operatiboa  
Miguel Angel Garcia  
Mugikorra: 609 250 858  
garciamiguel@movistar.es

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak  
F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964  
**electricidad iparelek** s.l.  
INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA  
iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnua. 943 12 73 50  
www.trinmer.com  
**trinmer**  
TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

**ulmar**  
S.L.  
metalezko  
eraikuntzak  
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar  
Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnua: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50  
ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

**THELECER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS  
ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA  
E.I.T.  
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50  
AJT zihurtasuna s.l.p.  
Barrena, 6 - behea esk.

**HEMEN ZURE TOKIA  
izan nahi baduzu  
deitu 943-206776  
telefono zenbakira**



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**

erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**

elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**

Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA**

**MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Silbia Hernandez

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhua Luz.

**TIRADA:** 8.050 ale.

**INPRIMATEGIA:**

GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.

**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Euskal Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zerbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KURKUBITXA.-** Sagar klase bat. "Sagar kurkubitzak sagasti hartan".

**KURRIN.-** Txerriak ateratzen duen zarataren onomatopeia. "Han ebillen txarrixa txixa-pozuan kurrinka". Txerria esateko ere erabiltzen da. "Kurriña be galanta daukazue".

**KURRIN-KURRIN.-** Txerriari deitzeko hotsa.

**KURRIXKA/URRIZKA.-** Txilioa, zarata, normalean txerriaren kurrina. "Jokua zan txarrixan kurrizkia zeiñek hobeto egin".

## astean esanak

"Txerriak eta ardoak ikur bihurtuta! Frantziar Fronte Nazionalak antolatuta izan ditu janleku herrikoiak, txiroei jaten emateko, baina ezaugarri gaizto batekin: otordu guztietan zerrikia ematen dute, musulmanak apropos kanpoan uzteko. Irango Rouhanik Frantziako presidentearekin egin behar zuten bazkaria bertan behera geratu zen, frantziarrek uko egin ziotelako ardoak menuetik kentzearekin. Bestela, ez dago alderik Frantziako eta Irango gobernuen artean: batek armak saldu nahi ditu, besteak erosi"

(JOSEBA GABILONDO, IRAKASLEA)

"Alemaniak BPGren %16 du eskudirutan, eta Frantziak %4 baino ez. Euroguneko populazioaren %0,2 baino ez duen Luxemburgok 500 euroko billeteen %15 eta 200 euroko billeteen %15 eta 200 euroko billeteen %30 jaulki ditu. Pentsa liteke diru horretako asko kanpora atera dela, baina 10.000 eurotik gorako mugimenduak jakinarazi behar direla dio EBko legeak, eta halako hamabost baino ez zituen iaz egin herrialde horrek urte osoan. Balio handiko billeteen erabilera susmagarrian Espainiak garai batean zeukan tokia hartu du Luxemburgok. 2007. urtean 500 euroko 114 milioi billete zeuden Espainian, euroguneko

lautik bat. Zortzi urte geroago, kopurua %40 murriztu da, baina eskudiru guztiak duen balioaren %85 dira"

(IVAN SANTAMARIA, KAZETARIA)

"Guretat hain indartsuak diren frantses askok eta askok agonia larrian sentitzen dute beren kultura, anglofonoei eta musulmanek itoa, eta defentsako arauak euskaldun askori paranoikoa zaigun kopururaino biderkatzen dituzte. 1994ko Toubon legeak, esaterako, frantsesez abesturiko kanten kuota bat ezartzen du irratietan"

(MARKOS ZAPIAIN, SAIKERAGILEA)



LEIRE NARBAIZA

## A8 (eta bestiak) duan!

Izenburua irakorritta baten baiño gehixago pentsauko zeban 15 urte atzera egin dabela. Baiña ez, A8Doan plataformiak biharian segitzen ez badau be, arazuak hor jarraitzen dau, bizirik.

Egixa da, A8 eta AP1en Gipuzkuako zatixa erabili ezkeriok, bertako diputaziñuak badakala halako tarifa lau bat, 25,64€ hillian baiño ez pagatzeko. Kontua da, Bizkaiko zatixan edo Arabakuan ibiltzen bagara, halakorik ez jakula aplikatzen.

Geografixa aldetik, mugan egonda, naturala da eibartarrok Bizkairutz egittia. Makinatxo batek hartzen dogu egunero bide hori biharrera juateko. Inungo deskuentorik barik, Ermuan hartuta 3,48€ eta Azittainen 4,86€ biaje bakotxeko. Egizue biderketia! Eskandalua da peajietan gastatzen doguna. Eta diskriminaziño garbixa gure beste probintziakidiekin konparauta.

Durango aldian hasi dira mobitzen. Firmak hartzen dihardue. Baiña Bizkaiko diputaziñuak esan dau zeozertxo. Baiña etara daben berba bakarra "bizkaitarrak" izan da. Atzera be, konponketa partziala, txaplatia. Eta berriro be, eibartarrok kanpuan! Ez da zentzunbakua bide bakarrak enpresa bik gestionatzia? Zeiñen buruan sartzen da komunidadea autonomo bereko autopista bera gobernu biren pian izatia eta gaiñera, arau desberdin bi eukitzia? Burutik eginda gagoz, ala?

Ezagun da diputaziñueri ez jakuela interesatzen alkarrekin eta danon onerako bihar egittia, bakotxak bere feudua dakalako. Ez dakit zeiñek irabazten daben honekin. Argi dago, ostera. Galtzaille bakarrak: gu geu.

## Sare sozialen inguruko pintxo-potea

Datorren astian, eguenian "Negozio txikixak sare sozialen junglan" izenburuko pintxo-pote berezixa egingo da Arrate Kultur Elkartearen, 19:00etatik 21:30xetara, Ekingune alkarriak antolatuta. Sare sozialak negozio batendako dittuen aukeriak azaltzeko asmuarekin antolatu daben saiuan parte hartzera animatzen diranak, euren buruak aurkeztu eta jarraixan gaixarekin lotuta dittuen galderak eta zalantzak bestieri azaltzeko aukeria eukiko dabe. Horrekin batera, "Lonifasiko" bidaia eta sukaldaritzari eskindutako bloga sortu eta kudeatzen daben Miguel Loitxatek hitzaldixa emongo dau eta, amaitzeko, esandako guztiaren inguruan eztabaidatzeko tartia egongo da, batutakuak pintxo-potia dastatzen daben bittartian. Izena emoteko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi edo 943 208 420 telefonora deitu leike (otsaillaren 22xa baiño lehen).



asteko  
**278.881**  
datua

*euro gehixago jasoko ditu Udalak Gipuzkoako Fondo Foraletik. Aurrekontua 16.152.825 eurokua zan eta likidaziñua 16.431.706 eurotara heldu da. Aurten historiako kopuru haundixena jaso dabe probintziako udalak, 2007kua gairidittuta. 2008tik 2013ra arte kopuru hori jausten juan zan, eta 2014an hasi zan barriro be gora egitten.*

## Torrealdai eta Ibarretxe Armerixaren eskutik

Datorren martxuaren 1ian, 12:30xetan "Ono Egindako Lana" programaren bosgarren saiua hartuko dau Armerixa Eskoliak. Euskeraz garatuko dan ekitaldixan Joan Mari Torrealdai eta Juan Jose Ibarretxe arituko dira alkarrekin berbetan. Antolatzailliak diñuenez, "euskal kulturaren suspertzaille eta eragille haundixa dan Torrealdairi egin daben biharra zein bere ekarpenak aitortu nahi detsaguz. Bere biharraren inguruan jarduteko eta bere etorkizunari buruzko hausnarketia egitteko, Juan Jose Ibarretxe lehendakari-ohia eukiko dau aldamenian".



*Erosketetan euskeria erabiltzeko animatzen egon dira azokan.*

## Erosketak be euskeraz

Eibar Merkataritza Gune Irekiak antolatutako neguko beherapenen azokan parte hartzen egon da ...eta kitto! Euskara Elkarte, Euskeraz Primeran! kanpaiñari eskindutako postua ipiñitta. Eguaztenian, atzo eta gaur goizian be postura gerturatu diraneri "Sartu euskera erosketen zerrendan" mezua idatzitta dakarren libretia oparitu detse, hozkailluko atian ipiñi eta, erosi biharrakuen zerrendia idaztera doiazan bakotxian, esaldixa irakorri eta euskeria erabiltzera animatzeko asmuarekin.


## Etxeberriaren lan barrixak MBFWMadrid-en

Atzo abiatu zan Mercedes-Benz Fashion Week Madrid (MBFWMadrid) dalakuaren barruan, Roberto Lopez Etxeberria diseñadoriak 2016-2017 Udazken/Negurako bere proposamenak erakutsiko ditu pasarela gaiñian, domekan 15:30xetan hasiko dan desfilean. Asteburu honetan erakutsiko daben kolekziñuak Salvador Dalik 1926xan margotu eban kuadrari zor detsa izena: "La miel es más dulce que la sangre".

IFEMA-k hartuko daben MBFWMadrid pasarelia ondo ezagutzen dau eibartarrak: lau alditan diseñadore hasi barrixendako egitten daben atalaren barruan be-



re lanak erakutsi eta gero, bere diseñuak oso harre-  
ra ona euki eben lehelen-  
gotik eta, horrerri esker, az-  
kar emon eban pasarela  
ofizialera saltua: 2013ko  
otsaillian lehelengoz hartu  
eban parte atal ofizialian,  
moda munduan oso eza-  
gunak diran diseñadorie-  
kin batera. Okasiñorako  
bakarrak berokixekin osa-  
tutako "Paris, Berlin, Mos-  
ku" kolekziñua aukeratu  
eban eta, hain zuzen be,  
kolekziño horretako  
jantzixak aukeratu dit-  
tue "Los Juegos Del  
Hambre" sagako peli-  
kula barrixenerako, ho-  
lan Etxeberriaren di-  
señuak pasarelan ez  
eze zinian be erakus-  
teko bidia zabaldua.



## Herriko diseñu grafiko eta industrialia museuan

Datorren eguenian, 18:30xetan presen-  
tauko dabe Ana Orozko artista eibartarra-  
ren "Diseinu grafikoa eta industrialia eiba-  
rren" argitalpen barrixa Armagintzaren Mu-  
seuan. Bi harrian taldiaren "Biharrian gara!"  
programa kulturalaren barruan, Armagin-  
tzaren Museuarekin alkarlanian argittara  
emon daben lana osatzeko, egillia museo-  
ko artxiboko diseñu grafiko nahiz industria  
giroko hainbat piezaren inguruko interpre-

taziño librian oiñarritu da. Argitalpenaren ai-  
tzakixarekin, bestalde, museuan horren in-  
guruko erakusketia antolatu dabe, "Eibarko  
industriaren ondare grafikuari dagokixon  
garrantzixa emoteko asmuarekin". Otsai-  
llaren 25tik martxuaren 23ra bittartian  
egongo da ikusgai, museoko ohiko ordute-  
gixan: eguaztenetik zapatara 16:00etatik  
20:00etara eta domeketan 10:00etatik  
13:00etara.

## autuan

### MERCADONARAKO BIHARGIÑAK

Mercadona gurian zabalduko daben supermerkatu-  
rako 40 bihargiñak aukeratzeko  
prozesuari ekin detsa.  
Lan eskintzak arlo bitarako,  
batzuk dendan jarduteko eta  
beste batzuk mantenimendu  
lanetarako dira eta interesa  
dakenak bere burua  
eskintzeko aukeria dake,  
Lanbideren webguniaren  
bittartez edo zuzenian  
Mercadonaren webgunera  
eskaeria bialduta. Oiñarrizko  
soldatia hilleko 1.270 eurokua  
(gordiñian, 1.101 euro garbi)  
izango da eta prima bat  
edo birako aukeria  
eskinduko dabe.



### UDAL AURREKONTUA

Udal aurrekontua osatzeko  
prozesuaren barri emon eban  
alkatiak martitzenian:  
oposiziñoko hiru taldiak  
zirriborroari egindako  
zuzenketa guztiak jasota, oin  
hórretxek aztertuko dittue,  
ondoren zeintzuk onartu  
leikiazen eta zeintzuk ez  
erabagitzeko. Bixen bittartian,  
gubernu taldiaren eta beste  
alderdixen arteko billerak  
hasiko dittue, aurrekontuak  
ahalik eta babes haundixena  
euki deixan adostasun billa.  
Martxoko lehen  
hamabostaldixan behin-betiko  
presupuestua plenora  
eruateko moduan egotia  
espero dabe.

## JAVIER JAUREGI ATXA-ALBIZURI

(2016-II-13)



*"ZURE irribarre eta samurtasuna  
betirako izango dira  
GURE ARTEAN"*

Zurç alaba Maiterçen kuadrilakozk





Barixakuko prentsaurrekuan azaldu zebenez, "igoeria bigarren hiruhilekotik aurrera" aplikatuko dabe.

## Zaborraren tasa %10-15 igoko da

Aurreko barixakuan Debabarreneko Mankomunidadian egindako prentsaurrekuan aditzera emondakua arabera zaborren kudeaketari lotutako zerga igo egingo dabe, hondakiñen tratamenduak eragindako gastueri aurre egin ahal izateko. Igoeria Mankomunidadia osatzen daberen udalerrri guztietan aplikatuko dabe eta udal bakotxian indarrarian daguan zerga-ordenanzaren araberrakua izango da, baiña batz besterik %10-15 bittartekua izango dala kalkulatu dabe. Arcadio Benitez, Mankomunidadeko

presidentiaren berbetan, "aurreko lege-gintzaldixan Hondakin Planak aurreikusitza zittuan azpiegiturak geldiarazteko hartu eben erabagixak GHK-n eragin daben defizita dala-eta, % 20 igo bihar izan da oin arte aplikatzen zan tarifa eta, horrekin batera, organikuen gaikako bilketarako diru-laguntzak murriztu bihar izan dira". Edozelan be, aplikatzen hasi aurretik udal ordenanzak aldatu biharko dittuenez, igoeria 2016ko bigarren hiruhilekotik aurrera aplikatzen hastia aurreikusitza dabe.

## Lana aurkitzeko laguntasuna

Debabarrenian lana topau ezinda duguaz gaste kualifikatuerei horretan laguntzeko asmurekin, Hazilan proiektua abiarazi dabe Debegegan. Parte hartu ahal izateko eskatzen dittuen baldintzak honetxe dira: 20 eta 35 urte bittartian izatia, unibersitate titulu ofiziala edo goi maillako presaktuntza ziklua eginda izatia eta, horrekin batera, langabezixan egotia edo ikasketekin bat datorren biharren bat lortu nahi izatia. Edozelan be, Debabarreneko biztanleri lehentasuna emongo detse.

Azaldu dabenez, hautagai guztien artian aukeratzten dittuenak hartuko dabe parte proiektuan. Hórrek "Aktibatu" presaktuntza-saiuetan lan mundura sartzea erraztuko detsen erremintten bittartez gaitasun personalak eta profe-

Zure lanarekin



sionalak eskuratuko dittue. Horrekin batera, eskualdeko enpresetan praktikak egingo dittue edo proiektuaren bat garatzeko aukeria eukiko dabe. 2016xan deialdi bi egingo dittue: lehelengua martxuan (horretan unibersidade tituludunak eukiko dabe lehentasuna) eta bigarrena iraillian (horretan Lanbide Heziketako tituludunak eukiko dabe lehentasuna). Plaza mugatuak dira eta eskaerak izenemotiaren ordenaren arabera aztertuko dittue. Informaziño gehixagorako debegega.eus webgunian begiratu edo 943 820 110 telefonora deittu leike.



## Errigoraren olibuaren kanpaina

Gaur hasi da Errigora-ren Nafarroako olibuaren inguruko kanpaina. Asmua "konsumitzaille-talde indartsua alkartzia eta Nafarroako olibua ekoizliaren prezian ekartzia" da eta, horretarako, Nafar hegoaldeko oliba olibo kontentzialaren 5 litroko bidoia 22'5 eurotan eta ekologikua, barriz, 32 eurotan erosteko aukeria eskintzen dabe. Olibua eskatzeko epia martxuaren 2xan amaittuko da eta Eibarren hainbat taberna eta eskolatan, AEK eskaltegixan, LAB sindikatuan eta eibar@errigora.eus helbidian egin leikez eskaeriak. Bestela, [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) helbidian be eskatu leike.

Aurreko urtiotan be egin izan dabe baba-salmentia herriko sozialistak.




## Sozialisten baba-salmentia 27xan

Eibarko Sozialistak baba-salmenta antolatzen dabe urtero, hórrek salduta batzen daberen dirua izaera soziala dakan alkarteren bateri emoteko asmuarekin. Aurten EPE/Euskadiko Polio Elkarteari lagunduko detse eta, horretarako, otsailaren 27xan kalera urtengo dabe, 11:00etatik 13:30xetara, baba-raziñuak (sakramentuekin) 5 eurotan saltzera. Bestalde, ekimenak beste batzuetan euki daberen harrerira oso ona izan dala ikusitza, aurten Untzagan ez eze Urkizuko parkian, Amañan (paseo barrixan) eta Urkin (Cepa taberna parian) be salgai ipiñiko dittuela aurreratu dabe.

TUTULUMENDI



IDURRE  
 IRIONDO



## Gurasoak martxan

### “Gurasoak Martxan” programia hasi da

Aste honetan ekin detse Gurasoak Martxan programaren beste edizioño bateri eta, horren barruan, guraso eta seme-alaben arteko komunikaziñua hobetzera bideratutako lau topaketa programatu dittue (saiuak Portalean izango dira, bi otsaillian eta beste bi martxuan). Horrekin batera, udalak “Haurrei eta nerabeei tratu ona emateko Dekalogo” izenburukua banatuko dau Lehen Hezkuntzako ikastetxietan, “*ekimenetik kanpora egonda be, programarendako osagarriak diran edukixak dittu eta*”.

Gure herriko Guraso Alkartiekin eta Baikara-

rekin (Gipuzkoako Ikaslien Gurasuen Federaziñuarekin) alkarlanian, antolatu dabene garren saia datorren astian, martitzen egingo dabe, 18:30xetan Portalean eta jorratuko diran gaixak, bestiak beste, “alkarren arteko laguntasuna zelan bultzatu, hartu-emonak zelan hobetu, taldiaren presiñuari aurre zelan egin eta laguntza zelan eskatu” dirala aurreratu dabe. Hitzaldixetan parte hartu nahi dabene gurasuak Gizartekintzan (Portaleko 4. pisuan) emon lekie izena edo, bestela, bakotxak bere ikastetxeko Guraso Elkartekueri esateko aukeria be badago.

## Saharako umiendako famelixa billa

Zapatuan banatu zittuen Eibar Sahara Elkartekuek antolatutako marrazki lehiaketako sarixak Untzagan. Eibar eta inguruko 400 ikasle baiño gehixagok hartu dabe parte lehelengoz egin dan lehiaketan eta, sari-banaketia egitteko aitxakixarekin, umiak egindako marrazkiak ikusgai ipiñi zittuen. Epai-mahaixak aukeratu zittuan irabazliak Julen Uribe (10 urte), Aiora Unzeta (8 urte) eta Ane Ceballos (5 urte) dira eta bakotxak opari bana jaso eban.

Bestalde, Oporrak Bakean programako kidiak udan Saharako umiak jasotzeko prest daguazene famelixak bihar dittuela

emon dabe aditzera, “*azkene urtiotan ume sahararrak jasotzen dittuen famelixen kopuruak nabarmen behera egin dabela*”. Xabier Euzkitze alkarteko bozermailliak emondako datuen arabera, iaz Hego Euskal Herrixan 460 famelixa bildu zittuen, hórretako 140 Gipuzkoan. Gauzak holan, euskal famelixer bost miñutuz gogoeta egitteko eskaeria egin nahi detse, programan parte hartzera animatzeko esperantzarekin. Interesa dakanak Eibar Sahara alkartekuekin kontaktuan ipiñi leike, Facebook bittartez ([facebook.com/eibarsahara.elkartea](https://www.facebook.com/eibarsahara.elkartea)) edo 659591607 telefonora deittuta (Eduerne).



Saritutako hirurak Untzagan aurreko zapatuan.

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
**ITZULTZEN DITUGU,**  
 euskaratik gaztelarrera,  
 gaztelarik euskarara,  
 eta ingelesetik euskarara.

**ZERBITZUA**  
[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)

**Radio Eibar**

CADENA  
**SER**

**104,0 FM**

**Iradi**

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Uztailean Eusko Jaurlaritzak suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak eta salbamendu-zerbitzuak arautzeko legea aldatzeko proiektua onartzearekin batera hasi ziren horren kontrako ahotsak han eta hemen entzuten eta, horrekin batera, lege proiektu berriaren kontrako protesta eta mobilizazioak suhiltzaile parke guztietara zabaltzen joan ziren. Jaurlaritzaren asmoaren berri lehenengoz izan zutenetik hona egoera apur bat baretu da, maila handi batean suhiltzaileek hasierako proposamen hura aldatuko duten esperantza daukatelako. Hala ere, suhiltzaileen iritzia ezertarako kontuan izan barik onartu zuten legea aldatzeko proiektuaren mehatxua erabat desagertu arte, lege berriak suhiltzaileei ez ezik gu guztioi nola eragingo ligukeen argi azaldu nahi izan digute.

**A**zitaingo industrialdean, herrian bertan daukagu Arrate suhiltzaileen parkea. Josu Merino hor beharrean egiten duen suhiltzaileetako bat da eta, horrez gain, LAB sindikatuko ordezkaria ere bada. Lege berriaren harira bizi duten egoerarekin kezkatuta, horretarako arrazoiak azaldu dizkigu aste honetan suhiltzaileen egoitzara egindako bisitan.

Kontatu digunez, euren funtzioak ondo zehazten dituen legerik ez da izan orain arte, "eta horrelakoak zehazteko legea behar dugula uste dugu. Izan ere, batzuetan larrialdi bati erantzutera gu joan behar garen edo ertzainei edo beste batzuei dagoen... horrelako zalantzak izaten ditugu. Baina bakoitzaren betebeharrak ondo ze-

*haztuta jasotzen dituen legea izanez gero, horrelakoak saihestuko genituzke eta, gainera, larrialdiari hobeto erantzungo genioke". Gaur egun suhiltzaileen jarduna moduren batean arautzeko bide bakarra larrialdietako legearen kapitulu batean jasotakoa litzateke. Baina, hala ere, suhiltzaile gehienak bezala, legea aldatzeko Jaurlaritzaren proposamenaren kontra dago: "Guk zerbitzu publikoa ematen dugu eta, alde horretatik, herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena ematea nahi dugu, gure zeregina hori dela pentsatzen dugu".*

Baina Jaurlaritzak proposatzen duena ez dela eurek behar duten legea argi daukate: "Lege berriak ematen dugun zerbitzuaren kalitateari zuzenean eta okerrerako

*eragingo liokeela uste dugu. Planteatzen dituenak irakurrita ezin da besterik pentsatu: suhiltzaile lanpostuetako hutsuneak boluntarioekin edo lanaldi partzialeko suhiltzaileekin betetzeko aukerari bidea zabaltzeaz gain, zerbitzuaren pribatizazioari ez dio aterik ixten, gure funtzioen galera ekar dezake... zerbitzuak okerrera egingo luke, zalantza barik".*

### Zerbitzuaren prekarizazioa

Gauzak horrela, aurreproiektua eurekin ezertarako kontatu barik mahai gainean ipintzea aurpegiaritzen diote Jaurlaritzari, "euren premia eta arazoak ez dituela kontopontzen" gaineratuta. Suhiltzaileen berbetan, erabakia eurei ezer galdetu barik hartu zuten eta, gainera, lege berriak zerbitzuaren kalitatea zein herritarren segurtasuna kaltetuko litzuzke. Horregatik, berandu baino lehen lege berriaren kontrako mobilizazioak antolatzen hasi ziren suhiltzaileen parke guztietan. Horrekin batera, iazko abenduan ehunka suhiltzaile Bilbon kalera irten ziren, legeak "zerbitzuaren pribatizazioa eta prekarizazioa ekar dezakeela" salatzen. Ordurako tramite parlamentarioan zegoen prebentziorako, suteak itzaltzeko eta salbamendurako EAEko lege proiektua, baina hala ere suhiltzaileek ez zuten amore eman eta horren kontrako protesta eta mobilizazioekin aurrera jarraitzea erabaki zuten. Hirugarrenez lege berria erretiratzea eskatzeko Bilbon egin zuten manifestazioa ez zen lehena izan, horren aurretik suhiltzaileek horrelako beste bi (Donostian eta Gasteizen) egin zituzten eta. Bizkaiko hiriburuan ELA, LAB,

# Herritarren zerbitzura...

# BETI PREST!



*Jaurlaritzak aurreko udan onartutako aurreproiektuak haserre bizia piztu zuen suhiltzaileen artean.*



CCOO eta Bazkuna sindikatuek deituta egin zen protestan "Suhiltzaile lege honi ez" zioen goiburua eta sindikatuetak ordezkariek Jaurlaritzari egindako eskaera berretsi zuten: lege berri bat tramitatzeko, eta berau osatzeko behargin eta sindikatuekin berba egiteko.

*"Ez da suhiltzaileek ezta euskal gizarteak behar duten legea"* esaldiak ederto laburbiltzen ditu suhiltzaileen kexa nagusiak. Diotenez, *"ez du suhiltzaileen zerbitzua eskubide publiko gisa irudikatzen eta guk behintzat oso argi daukagu zerbitzu hori instituzio publikoek kudeatu behar dutela"*. Lege proiektuak pribatizazioari ateak irekitzarekin batera *"ez duela 24 orduko zerbitzua bermatzen"* salatzen dute eta figura berriak (aldizkako suhiltzaileak edo suhiltzaile boluntarioak) agertzarekin batera zerbitzuaren *"prekarizazioa"* emango litzatekeela diote.

Puntu horri arreta berezia ipintzen diote, gainera: *"Gure ustez, suhiltzaileena kalitatezko zerbitzua izan behar da, eta publikoa, jakina!"*. Izan ere, gizarteari zerbitzu ona emateko berme eta modu bakarra kudeaketa instituzio publikoen esku egotea dela diote eta, horrez gain, argi laga nahi dute *"zerbitzuaren prekaritateak gizarte osoari eragingo liokeela, gu guztion arazoa izango litzatekeela"*.

Aurreproiektuak planteatzen dituen moduko neurriak saihesteko proposamena ere badute: Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan zenbat profesional behar diren zehazteko ikerketa egitea. Baina horrelako zerbaiteko aukera egon arren, politikoez ez dutela horrelakorik egin nahi diote.



**Azitainen lau kamioi daukate prest edozein larrialdi gertatuz gero horri erantzutera joateko. Silbia**

### 24 orduko lanaldiak

Suhiltzaileek lana nola egiten duten kontatu digu Josuk: *"24 orduko lanaldiak egiten ditugu, eguerdiko 14:00etan sartu eta hurrengo egunean 14:00etan irtetzen gara. Turno bakoitzean lau lankidek, hiru suhiltzailek eta kabo batek jarduten dugu elkarrekin. Horrez gain, lau parkeetarako (gurearekin batera Zarautzekoa, Oñatikoa eta Azpeitiakoa daude) sargento bat daukagu, batetik bestera txandaka ibiltzen da"*. Eibarko parkeko suhiltzaileak launaka, sei turnotan banatuta daude eta guztira 26 dira.

Irteerarik ez duten egunetan, lan-errutina bati jarraitzen diotela azaldu digu: *"Lanera sartu eta kamioia atzertzen dugu, dena erabiltzeko prest dagoela ziurtatzeko eta horrekin batera kamioiarekin eguneroko*

*buelta bat ematen dugu. Arratsaldean balizko larrialdi egoera batean nola jokatu genukeen praktikatzen dugu taldean eta, ondoren, hemen daukagun gimnasio txiki batean ariketa batzuk egiteko tarteak izaten dugu. Afaria 21:00ak aldera izaten da eta gutariko batek prestatzen du, horretarako daukagun sukaldetxoan. Afalostean tertulia pixka bat egin eta gauerdiko lotan egoten gara. Goizeko 07:00etan ohetik altxatu eta, gosaria hartu ondoren, kamioiak berriz begiratzen ditugu, mekanikari arreta zehatzagoa ipinita. Hori amaituta beste praktika bat egiten dugu eta, kirol pixka bat gehiago egin eta gero, etxera joateko ordua ailegatzen zaigu"*. Horrelako egunak, baina, gutxi izaten dira, urteko irteeren baztbestekoa 360 ingurukoa da eta.



**Funeraria-Ehortzetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

*Pausoz pauso,  
 gailurrez gailur,  
 zure adiskidetasuna  
 betiko gelditzen da.*

ZURE MENDIKO LAGUNAK



**Pello Orbea Garate**  
**(2016-II-17)**

Hori emoten dabe aditzera Udal Estadistikako azken urtiotako datuak. Holan, urtarrillaren 1ian kaleratutako datuetan, Eibarrek 27.493 biztanle ditu: 14.168 emakume eta 13.325 gizonezko. 2015eko egun berian, oin dala urtebete, 27.414 giñan, oin baiño 79 gitxiago. 2014n, bestalde, 27.440. eta 2013an, 27.439. Ikusten denez, ez dago aldaketa haundirik. Dana dala, kanpotik datozenak parekatzen dabe datua, azken urtiotan Eibarren jende gehixago hiltzen dalako jaixo baiño.



#### Urtia Biztanliak

1900.....	6.583
1910.....	10.121
1920.....	11.888
1930.....	12.874
1940.....	11.772
1950.....	16.318
1960.....	31.725
1961.....	32.614
1962.....	33.579
1963.....	35.364
1964.....	35.800
1965.....	35.617
1966.....	36.540
1967.....	37.875
1968.....	38.308
1969.....	38.827
1970.....	37.073
1971.....	37.756
1972.....	37.977
1973.....	38.206
1974.....	38.527
1975.....	37.932
1976.....	38.403
1977.....	39.087
1978..	39.561
1979.....	39.530
1980.....	36.919
1981.....	36.494
1982.....	37.051
1983.....	36.962
1984.....	36.675
1985.....	36.296
1986.....	34.537
1987.....	34.545
1988.....	34.355
1989.....	33.816
1990.....	33.422
1991.....	32.362
1992.....	32.330
1993.....	31.932
1994.....	31.489
1995.....	31.119
1996.....	30.311
1998.....	29.747
1999.....	29.341
2000.....	28.942
2001.....	28.711
2002.....	28.513
2003.....	28.182
2004.....	28.006
2005.....	27.784
2006.....	27.530
2007.....	27.404
2008.....	27.496
2009.....	27.419
2010.....	27.378
2011.....	27.396
2012.....	27.439
2013.....	27.439
2014.....	27.440
2015.....	27.414
2016.....	27.493

## Gizonezkuak baiño 843 emakume gehixago Eibarko populaziñua egonkortu egin da azken urtiotan

**G**aur egungo Eibarko biztanlien sailkapena adiñaren arabera honakua da: 0tik 25 urtera artekuak 6.111 dira (guztien %22,23), tarte horretan 45 gizonezko gehixagorekin; 26tik 50era arteko tartian, 9.178 biztanle dagoz (%33,38), hor be 318 gizonezko gehixagorekin; 51tik 65 urtera bittartekuak 5.796 dira (%21,08), eta hor emakumiak aurria hartzen dabe, 156 gehixagorekin; eta 65 urtetik 100era bittartian 6.402 bizilagun dagoz (%23,39), eta hor bai argi emakume gehixagorekin, 1.046 hain justu. Zeozergaittik hartzen dittue emakumiak batzbeste bost-sei urte gehixago! 100 urtetik gorako sei la-

gun zeguazen urtarrillaren 1ian geure artian: hor be, bost emakumiak ziran; gizonezkoa, barriz, bakarra.

Eibarrek jende gehixen izan daben urtiak urrun dagoz. Estadistikak erakusten dabenez, 1978xa izan zan Eibarrek bizilagun gehixen izan zeban urtia. Behin baiño gehixagotan entzundako "40.000 biztanle izatera iritsi giñan" hura ez dirudi egixa danik, baiña bai oso getu egon giñala, urte hartan 39.561 bizilagun izan zittualako Eibarrek. Pentsa, oin baiño 12.000 gehixago! Jauzi hori ez da momentu batiñan izan, urtetan jarraitutako prozesuana baiño. Hor izandako jaiotza, heriotza, migraziño eta inmi-

graziño kopuruak argitzen dabe aldaketa hori.

Hasteko, jaiotze aldetik oin 1970-80ko %22ra bakarrik heltzen gara, hau da, oin mundura etortzen dan ume baxotzeko lehen lau iristen ziran. Egin kontu: 1965ian 915 lagun jaixo ziran eta 160 bakarrik hil; 1992xan, urrutirago jua barik, 135 ume jaixo ziran bakarrik, hildako lagunak 224 ziran bittartian. Heriotzeri begiratuta, aldia ez da hain garrantzitsua: oingo zifrak pixka bat altuaguak badira be, horren zergatixa batzbesteko adiñaren igoerian kokatu bihar da eta ez beste iñun. Hortik aparte, herrittik juaten diranen arteko protzentajiak aldaketak izaten dittu urtetik urtera, batzuetan goruntz, bestietan beherutz, baiña azken urtiotan bai izan dala gorakada. Eta, azkenik, hona datozenak sasoi batekuak baiño asko gitxiago dira: oin 200 bat lagun etortzen dira urtian, baiña 1960xan 2.345 etorri ziran (hamar aldiz baiño gehixago).

#### 1978raiño goruntza, gero jaisten juateko

Populaziñuak gerra zibilla eta gero jo zeban gora Eibarren, indar haundixarekin gaiñera 1940 eta 1960 bittarteko urtietan batez be. Horrez gain, beti izan da gure artian berezittasun bat: aldameneko herrixekin



1971n Eibarrek ixa 38.000 bistanle zittuan eta hazten jarraitu zeban 1978ra arte. Gero jaisten jua da kopuru hori, azken urtiotan finkatu arte (aldamenian urteroko datuak).

konparatuta, hamar urte lehenago izan direla holako mobimenduak. 1950ian izan zan populaziño bikoizketa horrek Eibarrek betidanik izan dabene ingurune fisikua mugatu hori lehertzeraiño eruan zeban. Horrek Ermua eta Elgoibar haunditza ekarri zeban, industriak eta Elgoibarrera, Durangora eta Gasteizeraïño bideratuz, horrekin komunikaziñuak be hobetziarekin batera. Sasoi bateko aurreikuspenak be kale egin eben: 1985erako 40 milla lagun iragartzen eben eta 1990erako 42 milla. Ezin esan asmatu ebenik, ezta?

**Atzerritarrak %7 dira**

Eta 64 herrialdetik etorritak. Oin dala zortzi urte, 2007xan esaterako, 1.440 atzerritar eguzen Eibarren, 51 herrialdetik etorritak, orduko populaziñuaren %5,5. Ordutik hona aldaketarik haundixena Pakistanetik eta Senegaletik etorritakuen kopurua



*Espaziuak mugatu dau Eibarrek populaziñuan gora egittia.*

da, orduko hartan Hegoamerikako herrialdiak ziralako nagusi, batez be Bolivia, Argentina, Brasil eta Venezuelatik hona etorritak. Gizonezkuen eta emakumezkuen kopurua nahiko paretsua da etorkiñen kasuan eta beti izan da antzera, hasieran gizonezkuak pixka bat gehixago izan zirala kenduta. Hori bai, badira hamarkada batzuk gure artian Marrueko-sekuak lehelengo postuan dagozena.

Eta eibartarrak atzerrira jotzen dabe? Biatzera ez, bizitzera? Ba bai: Estadistikako Instituto Nazionalaren datuak 2015eko otsailian, oin dala urtebete, erakusten zebenez, 729 lagun dira atzerrixan bizi diranak Eibarren jaixo edo bere erresidentzia hamen izanda.

Ikusten danez, sasoi batian gehixago izan giñan moduan, azken urtiotan ixa ez da aldaketarik izan: neurrixa hartu desagu Eibarrerri, kontizu.

**64 herrialdetik gurera etorritta**

**Azken datueri erreparatuta, 2.028 lagun etorri jakuz guztira beste herrialdietatik.** Hau da, gaur egun Eibarren bizi garenon %7,38 dira atzerritarrak. Marrueko-sekuak dira nagusi, 741 lagunekin (herena baiño gehixago). Aittatutakuen artian, 17 aberrigabe edo apatrida. Honek dira herrialde nagusixak:

- Maroko: 741**
- Pakistan: 114**
- Senegal: 106**
- Portugal: 95
- Dominikar Errep.: 88
- Aljeria: 79
- Bolivia: 70
- Nepal: 66
- Nikaragua: 56
- Kolonbia: 52
- Errumania: 47
- Venezuela: 46
- Ekuador: 31
- Txina: 28
- Bangladesh: 24
- Mali: 24
- Peru: 20
- Kuba: 19
- Kongo: 18
- Italia: 18
- Argentina: 17
- Nigeria: 15
- Mauritania: 15

**Gitxi batzuk herrixari formia emoten**

**1604ko urtarrillaren 26xan** soldatapeko 260 biztanle zittuan Eibarrek, euretako 71 basarritarrak. Hori bai, herrixak medikua edo zirujaua bazekan eta sendagilliak berak egingako zerrendan agertzen da kopuru hori. 1613an biztanliak 309 ziran eta 1618xan kopurua 346ra heldu zan. Biztanlien artian, kanpotarrak be asko ziran orduko Eibarren, 1621eko paperetan agertzen danez. Eta 1626xan 358 ziran medikuak zerrendatuta zittuan biztanliak. Handik hamar urtera, 1636xan, 313ra jaisi zan kopurua.

**Mende bat geruago,** 1747xan, 340 biztanle zittuan Eibarrek: 242 bertakua eta 98 kan-

potarrak. Herriko kaskuan bizi ziran 178; bestiak, 36 Aginagako auzuan, 75 Akondian, 57 Otaolan eta beste 32 Zelaia, Arizmendisuso, Arrate, Apalategi, Arrieta, Inarra, Lezeta eta Maltzaga hartzen zittuan beste auzo batian.

**Eta beste mende bateko jauzixa eginda,** "500 vecinos y 2.500 almas" agirixan idatzitta ageri dan moduan, 1847ko Madoz-en *Dikzionariuxak* "500 auzolkide eta 4.000 arima aurkitzen" dittu Eibarren, "sei kaleetan banatutako 164 etxietan eta 185 basarrixetan". Azkenik, 1863an Eibarrek 850 auzolagun eta 4.100 arima zittuan: 2.734 herri barruan eta 1.366 basarrixetan banatuta.

"MONOGRAFÍA HISTÓRICA DE EIBAR" *Gregorio de Mujikaren liburitik*

**FRANCISCA JUARISTI LIZUNDIA**  
 (2016-II-11n hil zen 86 urterekin)

**Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi**

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA DOMEKAN (OTSAILAK 21) EGUERDIKO 12:30etan, ARRATEKO ELIZAN.**



Ziortza Lamariano (Coliseoko langilea)

## «Ikusten ez den lan asko dago antzerki-emanaldietan»

*26 urteko eibartar gaztea ez da geldirik egoten den horietakoa. Gustoko zituen Osteopatia ikasketak egin zituen, eta etxerik-etxe masajeak ematen ibiltzen da. Horretaz gain, irailetik Coliseoan ikusi ahal izan dugu, leihatilan sarrerak saltzen, jendea eserlekuetan kokatzen edo arlo teknikoetan laguntzen. Kasualitatez hasi zen Coliseo Antzokian lanean eta esperientzia berria eta interesgarria deritzo.*



**- Noiztik zaude Coliseoan eta zelakoa da zure lana?**

Irailen hasi nintzen eta kasualitatez hasi nintzela esan daiteke. Lagun batek hor egiten zuen lan, baina kanpora joan zen. Orduan nik curriculum-a utzi nuen, eta berehala deitu zidaten. Zinea eta antzerki emanaldiak daudenean egoten naiz. Zinean sarrerak pikatu eta zenbatzen ditut, eta emankizunak irauten duen bitartean leihatilan egoten naiz. Gero atekak itxi, kartelak aldatu, oharrak jarri aldatetarik baldin badago... Kartelak euskeraz ere egiten ditugu eta, zentzu horretan, uste dut euskera jakiteak lagundu egin didala lana lortzeko. Antzerkian ere atezain bezala eta jendea eserlekuetan kokatzen egoten naiz. Gero, antzerkia amaitzen denean, guztia desmontatzen laguntzen dut: mikrofonoak, argiak eta batez ere *atrezzoak*. Coliseoan soinuaz, argiaz eta irudiaz arduratzaren diren teknikariak daude, eta ni komodin bezala nago, eurei laguntzen. Sarritan leihatilan ere egoten naiz. Ez naiz aspertzen, beti daukat zeozer egiteko.

**- Sasoi honetan, antzerki jardunaldiekin lan gehiago izango duzue...**

Bai, orain topera gaude. Antzezlan baten atzetik ikusten ez den lan handia dago, eta ikaragarri gustatzen zait. Hori ez da nire mundua eta beti nago galdetzen eta gauza berriak ikasten; tramankulu eta izen mordoak dago, pantaila edo foko bakoitzak izen bat dauka, mikrofonoak ere mordoak dira eta bakoitzak soinu diferenteak harapatzen ditu. Atzo aktore batek esan zigun Coliseoak soinu aldetik bizitza handia daukala, eta horrela da, akustika oso ona dauka.

**- Coliseoko lanaz gain osteopata moduan lanean jarraitzen duzu, ezta?**

Orain gauza biak alternatzen ditut: Coliseoan daukadan lana eta masajeak. Askok gustatzen zait Osteopatia eta etxerik-etxe masajeak ematen ibiltzen naiz. Osteopatiak hemen ez dauka beste herrialde batzuetan daukan errekonozimendua. Osteopatia Ingalaterran sortu zen, eta nire asmoa egunen baten hara joatea eta ikasten jarraitzea da. Horregatik ingelesa ere ikasten dihardut.

## JUAN OSÉS BIENZOBAS

(5. urteurrena: 2011-II-17)

*"Bost urte pasa badira ere,  
gure bihotzetan jarraitzen duzu"*

ZURE FAMILIA



## WhatsART ekimena azaltzeko bilera gaztelekuan

Donostia 2016ko kultur proiektuaren baitan dagoen WhatsART ekimenean parte hartu nahi duten 15-18 urte bitarteko gazte eibartarrek horretarako aukera paregabea izango dute eta, gainera, herritik kanpora joateko premia barik: gaur 18:00etan Indianokua gaztelekuan egingo duten bileran WhatsART proiektuan parte hartzeko jakin beharreko guztiak azalduko dituzte.

Ekimena aste honetan abiatu da, Gipuzkoako hamaika eskualdeetako nerabeekin egiten hasi diren bilerekin. Arduradunek azaldu dutenez, "gazteek artearen bidez erronkei aurre egiten ikas dezaten" nahi dute ekimenarekin eta parte hartuko dutenak aukeratzeko antolatu dituzte astele-

henean hasi diren bilerak: "Aste bi emango ditugu horretan eta, ondoren, ekimen honetan parte hartuko duten 44 nerabeak (lau eskualde bakoitzean) aukeratuko ditugu".

### Mundua artearen bidez eraldatzen

"Artea zure mundua aldatzeko" goiburuari jarraituta garatuko den WhatsART izenekoarekin, "arte eta sorkuntza partekatuen bitartez gazteen erronka eta arazoak identifikatzea eta adieraztea" bilatzen dute arduradunek, "gazteek elkarrekin bizi duten gizartea hobetzeko eta etorkizun hobea bermatzeko". Horretarako, komunikaziorako eta arterako gaitasunak gazteei garatzen lagunduko dieten hainbat tailer




eta laborategi eskainiko dituzte eta aukeratutako 44 nerabe horiek hartuko dute parte.

Ekimenaren arduradunen berbetan, "gazteek Kultibaren lantaldeko kideek eta hainbat artista profesionalak osatutako bitartekari-talde baten laguntza izango dute. Horien laguntzarekin, gazteek Gipuzkoako ne-

rabeen errealitateari buruzko hausnarketa egingo dute eta, bide batez, artea eta sormena parean agertzen doazen arazoak konpontzeko baliagarriak izan daitezkeela ikusiko dute". Talde-dinamikak, laborategiak, kontraste-taldeak eta foro bat martxan ipiniko dituzte, "espazio digital modura".

## "PLAZA JOLASAK" zezen-plazako pista inauguratzeko

Gaur amaituko da bihar arratsaldean zezen-plazako instalazio berriak inauguratzeko izango den ekimenean parte hartzeko izen-ematea. Udalak antolatuta, Indianokua gaztelekuak eta Jazinto Olabeko ludotekak elkarlanean prestatu dute multikirol pista berria zabaltzeko egitaraua. Horri jarraituta, bihar arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara hainbat joko eta jolas egingo dira zezen-plazan. Aurreratu dutenez, "gazte orok disfrutatzeko moduko jolasak antolatu ditugu: zaku erraldoiaren lasterketa, eskiak, uztaila, plastikozko gupila, sokatira, zapira, 3 harrien gainetik, erreleboak bikoteka, hankak lotuta, jinkana, buztanak lapurtzen... eta horrelakoak". Horietan LHko 5. eta 6. mailakoek eta DBHko 1. eta 2.-ekoek parte hartu ahal izango dute eta interesa dutenek ludotekan zein gaztelekuan eman dezakete izena.




## FELIX BERGARA ZURUTUZA (apaiza) III. urteurrena (2013-II-22)

**"Eskerrak eman nahi dizkizugu, Felix, parrokiaren eta auzoaren alde egindako lan guztiagatik"**

HAREN IDAZKARIA (M<sup>a</sup> CARMEN FERNANDEZ MEMBRIBE), SENIDEAK, JASOKUNDEKO ELIZTARRAK ETA EIBARKO LAGUN GUZTIAK

Haren aldeko **MEZA** ospatuko dugu domekan (hilak 21), Azitaingo Jasokunde Parrokian, goizeko 11.00etan



**K**OLDO ZUAZO eibartar hizkuntzalariak euskalkiei buruzko webgunea sortu du (www.euskalkiak.eus). Bertan euskalkiei buruzko informazio mordo dago: euskalkien ezaugarriak, jatorria, sailkapena, bideoak... Koldo Zuazo EHUKo irakaslea (Dialektologia eta Euskararen Soziolinguistika arloetan) eta euskaltzain urgazlea da. Nabarmenezkoa da euskalkiak ikertzen egin duen lana. Horren emaitza da gaur egungo euskalkien sailkapena eta mapa (1998), eta mendebaleko euskararen sorleku posibletzat Gasteiz hartzea. Euskara batuan tokian tokiko euskalkiaren ñabardurak jasotzearen aldeko da.



# Euskara

## "gaurko eta etorkizuneko HIZKUNTZA da"

**- Zein da webgunearen helburua? Zergatik egin da? Norengana iritsi nahi da?**

Joan den aspaldian euskara batua eta, gehienbat, euskara batu jaso, idatzizkoa landu dugu eta ahozko euskara, lagunartekoa, oso baztertuta geratu da. Guk uste dugu alderdi hori ere inportantea dela. Hizkuntza batetik bizirik iraungo badu, umeek jolasean, gazteek kirolean eta nagusiek lagunartean erabili behar dute nahitaz eta, azkenaldian, arlo horiei ez zaie jaramon handiegirik egin. Hutsune horiek bete nahi ditugu.

**- Noizkoak dira gaur egungo euskalkiak eta nola sailkatzen dituzu?**

Badirudi gaur egun erabiltzen ditugun euskalki hauek Erdi Aroan sortutakoak direla. Ematen du erromatarrak gure artean izandako garaian eta, baita ondorengo mendeetan ere, kohesio eta batasun estua egon zela euskaldunen artean eta hizkuntzan ere ikusten da batasun hori. Gero etorri zen zatiketa eta hizkuntzaren dialektalizazioa.

Euskalkiak sailkatzeko orduan, non sortu ziren hartu dut kontuan eta sorleku horiek zein eragin esparru izan zuten. Esate baterako, mendebaleko euskara, Eibarren eta Deba ibarrean egiten dena, Gasteizen sortu zela ematen du. Eta Gasteizko eragina Arabara, Biz-

kaira, Gipuzkoako mendebalera (Deba ibarra, Goierri eta Urolaldea), Nafarroako mendebalera (Burunda, Ameskoa eta Lana), Burgoseira eta Errioxara heltzen zela ikusten da. Horri deitu izan diot "mendebaleko euskalkia".

**- Nolako da gaur egun adin desberdinetakook egiten dugun euskara?**

Zaharren euskara eta gazteena nahiko desberdina da. Gazteen euskara asko berdindu da. Berez berdintzea ona da, baina Euskal Herriaren arinegi egin da bidea eta, tartean, gauza asko galdu ditugu. Galtze hori da txarra eta oraindik eskura dagoena jasotzen ahalgindu behar dugu. Bestalde, erdararen eragina gero eta handiagoa da eta hor ere hesi

**Edozein hizkuntza bizitan sortzen dira dialektoak. Beste era batera esateko, dialektoak dira hizkuntza bizirik dagoen seinale. Orduan, etorkizunean euskalkirik ez bada, euskara hil den seinale izango da.**

batzuk ipini beharra daukagu. Euskarazko berbak eskura izanda, ez dago erdaratik zertan hartu. Gehienetan konplejo kontua izaten da: uste izaten dugu kanpoko atxekoa baino hobea dela, modernoagoa, indartsuagoa, politagoa.

**- Nolako eragina izan du euskeraren batasunak euskararen bilakaeran?**

Batuak oso gauza onak ekarri ditu. Esate baterako, ortografia arau berberak erabiltzen ditugu gaur egun euskaldun guztiok. Hitz berriak ere berberak dira euskalki guztietan. Hori dena ondo dago. Alde txarra euskalkietako hitz eta egitura jatorrak galtzea izan da. Gure kasuan, esate baterako, asteko egunen izenak bereziak izan dira (martitzena, eguaztena, eguena...) eta gaur egun gureak baztertu eta auzokoak erabiltzen hasi gara: asteartea, asteazkena, osteguna... Horrela jokaturik, galdu egiten da hiztunak hizkuntzarekin daukan lotura, galdu hizkuntzaren balio afektiboa, eta hori galtzen bada, hizkuntza bera galtzeko arriskua dago.

**- Nola ikusten dituzu euskalkiak etorkizunean? Eutsiko ote diote?**

Euskara bizirik badago, euskalkiak izango dira. Edozein hizkuntza bizitan sortzen dira dialektoak. Beste era batera esateko, dialektoak dira hizkuntza bizirik dagoen seinale. Orduan, etorkizunean euskalkirik ez bada, euskara hil den seinale izango da. Nork nahi du hori? Nik neuk ez, behintzat.

**- kus-entzunezkoei buruzko atala dago webgunean eta bertan EH osoko bideoak azaltzen dira. Zer nolako jendea agertzen da eta zer erakutsi nahi izan duzu?**

Bideoetan jende gaztea agertzen da askotan. Horrekin euskara gaurko eta etorkizuneko hizkuntza dela erakutsi nahi izan dugu. Pertsona bakoitzak bere lanbidea edo bere zaletasuna azaldu du eta, alde horretatik ere, gaurkotasuna dauka. Hain zuzen, euskara iraganarekin, jende zaharrarekin, baserriko bizimoduarekin lotzeko arriskua baztertzen ahalegindu gara

**- Azken urteetan denbora asko eman duzu Euskal Herriko leku desberdinetan tokian tokiko euskera aztertzen. Nolako ondorioak atera dituzu?**

Antzeko egoera ikusten da Euskal Herri osoan. Esate baterako, Euskal Herri gehienguan galtzen ari da hitanoa. Lagunarteko

**Urte asko daramat Eibartik kanpora, baina eibartarrak irratian-edo entzuten ditudanean, euskaraz egiten dute berba: Susaeta Athletic-ekoak, Oihartzabal Errealekoak, Enrike Zuazuak, Maite Arraoitajauregik...**

euskararen ezaugarria da hitanoa eta, hori galtzen bada, lagunartean euskara gutxiago erabiltzen den seinale garbia da. Hain zuzen, horixe izan zen webgunea egiteko arrazoietako bat.

**- Nola ikusten dituzu Eibarko euskera jasotzeko egin den lan guztia? Euskal Herriko beste lekuetan horrelako lanak egin dira?**

Eibarren meritu handiko biharra egin da. Gerra ostean sekulako errepresioa egon zen, sekulako erdaldun mordoa etorri zen, baina euskarak bizirik iraun du. Inportantzia handia eman zaio transmisioari, inportantzia handia bertako euskara jasotzeari eta erabiltzeari. Eibarkoa da, esate baterako, Euskal Herriko hiztegi zaharretako bat: Toribio Etxeba-

rriarena. Ahalegin horrek bere frutua ekarri du. Urte asko daroat Eibartik kanpora, baina eibartarrak irratian-edo entzuten ditudanean, euskaraz egiten dute berba: Susaeta Athletic-eko jokalaria, Oihartzabal Errealekoak, Enrike Zuazua matematikalaria, Maite Arroitauregi, musikaria... Oso pozgarria da eta, egia esan, harro nago eibartarra izateaz.

**- Tokiko euskal hedabideek daukagun helburua euskaraz informatzea eta euskararen erabileran eragitea da. Zure ustez euskalkiek presentzia handiagoa izan behar lukete?**

Duda barik. Euskal Herri osoko hedabideetan euskara batua erabiltzea da zentzuzkoa, baina herri euskaldunetakoetan, bertakoa, herritarren gertukoa erabili behar da. Batua erabiltzen denean ere, herriko berbak, herriko esapideak, herriko sintaxia eta, ahal den guztian, herriko berbetaren ezaugarriak sartu behar dira. Eta, gainera, euskara batuak ematen du horretarako aukera. Gure arazoa da ez dakigula zuzen zer den euskara batua. Uste dut horretan nabarmen egin duela huts Euskaltzaindiak: ez digu ganoraz azaldu zer den eta nola eta non erabili behar den euskara batua.

**martxoak 3 eguna  
 martxoak 4 barixakua**

**II. GLDA  
 LEHIAKETA**



PARTE-HARTZAILEAK:

- AKARA - AMESTI - AMETSA - ARKUPE - ASTELENA  
 BAISI - BIRJIÑAPE - BOSSA - BOULEVARD - CEPA  
 DEPOR - FOXTER - GURBIL - GURIDI - JANTAEDAN  
 KONTENT - KOSKOR - KOXKA - KULTU - NUEVO  
 O'JAYS - ONGI ETORRI - SUTONDO - TXIRULA - XANIA

**SARI BI**

**1** Herritarren saria: **150€**

Tabernetan bozketarako kutzak eta orriak egongo dira.

**2** Epaimahaiaren saria: **150€**

**EPAIMAHAIKIDEAK:**

Mireia Alonso - Josu Gimenez - Josu Mugerza

Bozketan parte hartzen dutenen artean **AFARIA** zozketatuko da **BI LAGUNENTZAT**.

**Animatu zaitetz eta parte hartu!!!**

Antolatzailea



Euskara Elkarte

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Liburuak

## eLIBURUTEGIA, DIGITALEAN IRAKURTZEKO MODU JASANGARRIA

2014ko urte bukaeran gure irakurleek askotan eskatu diguten zerbitzua jarri zen martxan: ebook-ak maileguan deskargatzeko zerbitzua, hain zuzen ere. Zerbitzu horren izena: **eLiburutegia**. eLiburutegia plataforma bat da Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorrek direla medio burutu daiteke. Zerbitzu horretara sartzeko gogoratu helbide elektronikoa hau: [www.eliburutegia.euskadi.eus](http://www.eliburutegia.euskadi.eus).

### NOLA ERABILI

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko edozein liburutegiko bazkidea bazara beste zerbitzuetara sartzeko erabiltzen dituzun datu berdinak (bazkide zenbakia eta pasahitza) sartzearekin nahikoa da. Pasahitza ahaztu baduzu zure liburutegira jo beharko duzu eta berri bat emango dizute. Oraindik ere Sareko liburutegi publiko batenko erabiltzailea ez bazara eska ezazu zure txartela liburutegian eta plataformara sartzeko beharrezko datuak emango dizkizute.

### ZALANTZAK BADITUZU, NORENGANA JO DEZAKEZU?

Mailegu zerbitzu berri honi buruzko edozein zalantza argitzeko jar zaitez harremanetan zure liburutegiarekin. Informazioa emango dizute eta edozein zalantza argitzen lagunduko dizute. Eibarko liburutegiak KZgunearen kolaborazioa lortu du zalantza teknikoak argitzeko, eta eurekin ere harremanetan jarri zaitzake.



### Liburutegian mailegatzen dituzten liburu digitalak deskargatzeko laguntzarik behar al duzu?

Laguntza pertsonalizatua eskaintzen dizugu zure irakurgailuaz (tableta, eReader-a, Smartphone-a, ordenagailu eramangarria, etab.) eLiburutegia, liburu digitalen deskarga legalak egiteko plataforma, erabiltzen ikas dezazun, bai Eibarko KZgunearen bai Liburutegian. Liburutegiko bazkide izatea ezinbestekoa da. Doakoa da. Hitzordua hartzeko, pasa zaitez edo deitu KZgunera edo Liburutegira.




Asteleheneak ostirala,  
9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.  
Portalea Erakina. Bata Eder, 10-2  
Tel. 943 023 637

Juan San Martin Liburutegia  
Bata Eder, 10-1 | Tel. 943708437  
<http://www.eibar.eus/ea/kultura/jsm-liburutegia>

# Musika

### "Bi" - SAIOA

Kamila Zubeldiak eta Marieder Iriartek osatzen duten bikoteak folk estiloko diskoa kaleratu du. Hamar kantuz osatzen da lana, Iparraldeko folkaren paisajearekin. Berbak Nemesio Etxaniz, Joan Casenave, Patxi Perurena eta Joseba Sarrionandiarenak dira.



### "Ongi etorri" - ANNE ETCHEGOYEN

Bidarteko kantari gaztea gizonetako Aizkoa Abesbatza du alboan Hegoaldeko publikoari bereziki eskainia dagoen disko-bilduman. Aurreko diskoko zenbait kantuk, bigarren diskoko beste zenbaitek eta kantu berri bik osatzen dute diskoa.



### 2015-EKO DATUAK

Gure Liburutegiko bazkideek **957 liburu** deskargatu dituzte 2015ean eLiburutegitik eta **209 lagunek** zerbitzu berri hori erabili zuten.

Hauek izan dira gehien deskargatu diren tituluak:

- 1) Itxaso Martin Zapirain, "Ni, Vera".
- 2) Camilla Läckberg, "Crimen en directo".
- 3) Dolores Redondo, "Legado en los huesos".
- 4) Irati Jiménez, "Nora ez dakizun hori".
- 5) Alberto Ladrón Arana, "Ahaztuen mendekua".
- 6) Kate Jacobs, "El club de los Viernes".
- 7) Toti Martínez de Lezea, "La Brecha".
- 8) Joan Mari Irigoien, "Ipui batean bezala".
- 9) Mallorca, "Edición 2015".
- 10) Anjel Lertxundi, "Zoaz infernura, laztana".

Baina, besterik gabe, sar zaitez eta hasi kuxkuxeatzen. Irakurle digitala bazara, **benetan merezi du!**

### ZER AURKITUKO DUZU E-LIBURUTEGIAN?

**Formatu digitalean irakurtzeko aukera.** Azken nobedadeak, literatura klasikoak eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegiek egindako hautaketa zabal bat eskuratzeko aukera izango duzu. Bilaketak egileak, argitaletxeak, gaiak, argitalpen urtea eta hizkuntzen arabera egin daitezke. Web guneko lehen orrialdean gomendioak eta gehien mailegatutakoak topa ditzakezu.

Erosketa-proposamenak aurkezteko aukera ere izango duzu, eta eduki digitalean daudela egiaztatu ondoren eLiburutegian sartuko dira.



eva alberdi

### SILVIO RODRIGUEZ Donostian ikusteko sarrerak agortuta

Silvio Rodriguezen bira apirilaren 3an helduko da Donostiara, Anoetako belodromora, eta, bi hilabete falta direla, sarrerarik ez da geratzen. Kubatar kantautore, gitarra eta poetak ehunka kantu idatzi, sariak ugari jaso eta bi liburu argitaratu ditu, eta haren kantuak 10 hizkuntzatan baino gehiagotan moldatu dituzte. Donostiako kontzerturako, ateak 18:30ean zabalduko dira, eta emanaldia 20:00etan hasiko da.

### BRUCE SPRINGSTEEN maiatzaren 17an izango da Anoetan

Bruce Springsteen eta The E Street Band bere taldea zuzenean arituko dira Anoeta estadioan, The River Tour 2016 biraren baitan Europan eskainiko duen kontzertuetakoan. Sarrerak martxoaren 4an jarriko dira salgai, Interneten (doctormusic.com, ticketmaster.es, fnac.es, carrefour.es eta halconviajes.com). Kontzertua eserita ikusteko sarrerak 65 eta 115 euro arteko prezioan erosi ahaliko dira, eta emanaldia pistan zutik ikustekoak 80 euroan.

### KALAKA-ren bestaldea agerian urte berriarekin

lazko udaberrian, "Elementuak" diskoa argitaratu zuen Kalakan hirukoteak "berkonexio" garai baten ostean, Madonnarekiko lankidetzaren osteko zurrunbiloa baretuta bere bidea bilatu eta nortasuna indartu ondoren. Orain, ia urtebete geroago, "B aldeak" eta "Kalakan & friends" diskoa eta DVDa besapean hartuta egin diote aurre urte berriari. Hirukoteak lagun izan dituen adiskideekin batera eginiko kontzertuaren grabazioa ere merkaturatu du.





## Eibarrek bikain jarraitzen du, Europarako postuetan

Liga amaitzeko 14 jardunaldi falta direnean, Eibarrek iaiz lortutako puntu-kopurua gainditu du eta, 36rekin, sailkapeneko seigarren postuan dago, Europan jokatzeko tokian. Ez hori bakarrik: sinesgaitza egiten bada ere, Real Madrilen eta Bartzelonaren atzetik, gol gehien sartu duen taldea da 1. mailan. Aurreko domekan 2-0 irabazi zion Levanteri eta bihar gauean, 22:05ean eta TV1-ek irekian eskainiko duen partiduan, Vigon Celtari egingo dio aurre. Galiziarrek polito jokatzen badute ere, une honetan eibartarren atzetik daude.

Bestalde, klubari dagokionez, martxoaren 6an Ipuruan jokatuko den Eibar-Bartzelona Klubari Laguntzeko Egunaren kargua pasatu zieten atzo abonatupei eta, modu horretan, bazkideek ez dute Ipuruako bulegoetatik zertan pasatu. Partiduaren egunean karneta erakustearekin nahikoa dute.



Periko Iriondo

## Mikel Oiarzabal eibartarrak hiru golekin sinatu du kontratu berria Realarekin

Aurreko astea berezia izan zen Realean jokatzen hasi den eibartarrentzat: astelehenean Espanyol-en kontra, 1. mailan lortzen duen estreinaldiko gola sartu eta gero, bariakuan Realarekin zuen lotura 2021era arte luzatzen zuen kontratua sinatu zuen (40 milioi euroko klausularekin) eta domeka eguerdian beste bi gol sartu zizkion Granadari Anoetan. Oraindik jubenil adinean dagoen jokalaria 2018ra arteko kontratua zuen lehenagotik Realarekin. Oiarzabal Ohorezko Kadeteetan jokatzen zuenean joan zen Eibartik Donostiara eta gero Eibar Ur-



kon jokatu zuen lagata. Eibarko harrobiko jokalaria Realarekin debutatu duela-eta, klubaren arteko hitzarmenari jarraituz Eibarrek hamar mila euro jasoko du

## Herriko gimnastak bihar Bergaran

Gipuzkoako Eskola Txapelketaren hitzordua dute Ipuruako gimnastek bihar Bergaran, guztira alebin mailako 15 talde eta infantil mailako beste bost hartuko dituen lehiaketan. Horrez gain, maila indibidualeko beste 39 ariketa eskainiko dira. Tania Nagornaia, Miriam Merino eta Natalia Urmakaeva prestatutako eibartarrek alebin mailako hiru talde aurkeztuko dituzte eta beste sei gimnasta infantil mailan. Euretako askorentzat "bataioa izango da lehiaketan". Arratsaldean benjaminen ordua izango da, "hor bederatziki gimnastekin".



## Mendizaleak Durangotik Gernikara

Ardo eta arrain bidearen azkenaurreko etapa osatu zuten aurreko zapatuan 30 lagunek Klub Deportiboko mendi batzordekoek antolatutako irteeran. 27 kilometroko ibilbidean, Durango eta Gernika lotu zituzten "basaz betetako bidean". Eguraldia, dena dela, ona izan zen, "txangoa hastean lainoa nagusi bazen ere". Ardo eta arrain bidearen azken etapa, Gernika eta Bermeoren artekoa, martxoaren 12an egingo dute. Aurretik, baina, urtero sagardotegira egiten duten irteera izango dute, hila bete honetako azken zapatuan: egun horretan Andoaindik Hernanira joango dira, 819 metroko Adarratik pasatuta, gero ondo merezitako me-nuaz gozatzeko.



**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko  
**JANTZIAK**

ume eta gazte  
**Kopina moda**

📘 kopinamoda  
San Agustin, 3  
943 204 181





## Urbatek aurre egin zion liderrari neurketa ikusgarrian

Gutxitan ikusi ahal den waterpolo partidu horietakoa eskaini zuten zapatuan Urbatek eta UPNA Euskal Ligako liderrak. Hurrengo denboraldian seguraski maila nazionallean jokatu duen Iruñeko taldeak bere onena eman behar izan zuen azkeneko eibartarrei 12-13 irabazteko. Davide Cerchiren mutilek bikain jokatu zuten azken laurdenera arte eta hirugarrenean,

esaterako, 11-8 zihozan aurretik. Ez da ahaztu behar maila bereko liderra eta azken sailkatua zirela aurrez-aurre; hortik Urbatekoen meritua. Orain maila berean jokatzeko izango da eibartarren helburua, gertzen diren jardunaldietan Euskal Herriko 1. mailari eusteko: hasteko, asteburu honetan Navarra C eibartarren borroka berean diharduen taldea izango dute bisitari Orbean.

## Finalerdietarako txartelaren bila

Azkargorta-Azkoitia Klub Deportiboko bikotea Gipuzkoako Errendimendu txapelketako finalerdietarako txartela eskuratzeko aukera ezin hobearen aurrean da: bihar Arrasateko bikoteari irabazten badio hango Uarkape frontoian, Eibarko infantil 1. mailako bikotea finalaren atarira helduko da. Ordu batzuk lehenago frontoi berean lehiatuko dute Deportiboko benjamin mailakoek ere.



**Argazkian**, Mikel Azkargorta erasoan eta Mikel Kamina erne.

## Bost domina Kalamuakoentzat

Zilarrezkoa irabazi zuten Julen Ramonek eta Josu Olmosek eta brontzekoa Ernesto Arabiaurrutiak, Garikoitz Del Barriok eta Iker Martinezek. Azken hau kadetea da oraindik eta, borroka bakarria galduta, kirolari eta prestatzaileen zorianak jaso zituen. Bestalde, Pedro Guerrak, Julio Gallegok eta Manu Agirrek epaile lanetan jardun zuten aipatutako txapelketan. Julen Ramon ez zen lehiaketa horrekin konformatu eta zapatuan junior mailako judoko Gipuzkoako txapela jantzi zuen Hernaniko kiroldegian.

## Kepak sei gol sartu zituen Azkena Adahirekin foball-zaletuan

Azkena Adahik Fontaneria Mujikari 8-0 irabazi zion partiduan Kepak lortutako sei golekin, foball-zaletuko liga txapelketako goleatzaile nagusia izateko bidean jarri dute Azkenako aurrelaria. Une honetan 24 gol ditu Kepak, Alkidebako Rodrigok baino zazpi gehiago eta Romeritok (Txoko) eta Yosuk (L.P. Machado Tankemans) baino zortzi gehiago. Txoko da orain arte gol gehien sartu duen taldea, 49rekin, Esmorgak eta Azkenak baino hiru gehiagorekin; eta, bestalde, Durangok erakutsi du atzealde sendoena orain arte -11 gol jaso ditu bakarrik-, Azkenaren aurretik (16 hartu dituzte azken hauek).

Azken jardunaldian interes gehien zuen partiduan, Txoko erraz nagusitu zitzaion Esmor-



gari (4-0) eta, horrela, euren arteko berdinketa apurto zuen, Durangoren atzetik bigarren postuan bakarrik geratzeko. Azkena Adahi-k, bestalde, Esmorga harrapatu du hirugarren postuan. Asteburu honetako partidu interesgarriena domekan jokatu da, 10:30ean, Esmorga (4. postuan) eta Alkidebaren (5. postuan) artean.

*Ander Salaberria eta Lucia Irigoien.*



## Bederatzi domina igeriketako gazteen neguko txapelketetan

Horiek izan ziren Urbateko igerilariak lortutako dominak Euskal Herriko neguko txapelketetan. Ander Salaberria eta Lucia Irigoien juniorrek Iruñeko Anaitasuna igerilekuan lehiatu zuten, guztira lau dominekin bueltatzeko. Irigoienek hiru eskuratu zituen: urrezkoa bikar erako 200 metrotan eta zilarrezkoa proba bereko 50 eta 100 metrotan. Salaberriak, bestalde, zilarrezkoa lortu zuen tximeleta erako 100 metrotan. Infantil mailako Euskal Herriko txapelke-

ta, bestalde, Tolosako Usabal kiroldegian jokatu zen eta handik bost domina eta hainbat marka pertsonalekin etorri ziren Eibarko igerilariak. Maite Barruetabeña txapel-duna izan zen 200 eta 400 metro estilotan eta 400 libretan, Kattalin Izagirrek zilarrezkoa bereganatu zuen 800 libretan eta Lara Urkirik brontzekoa 50 libretan. Jon Osa izan zen Urbateko laugarren ordezkaria eta azken honek bi bosgarren postu eta seigarren batekin konformatu behar izan zuen.

## Paddel Surf-a egin ahal izango da zapatu arratsaldetan igerilekuan



Hiru hilabetetan egongo da aukera kirol berria praktikatzeko Ipuruko igerilekuan.

Udal Kirol Patronatuak jarduera berria sortu du zapatu arratsaldetan Ipuruko igerilekuan egiteko, modu horretan aukera eskainiz Eibartik irten gabe Stand Up Paddel edo Paddel Surf modalitatea praktikatzeko. Jarduera hori hurrengo hiru hilabetetan, martxo hasieratik maiatza amaiera arte, egin ahal izango dute izena ematen dutenek. Horretarako, gainera, ez da baldintza askorik ezarri: 14 urte izatea, uretan autonomia eta ondo pasatzeko gogoz joatea, besterik ez. Izena Ipuruko atezaintzan eman daiteke edo, bestela, 943-203240 telefono zenbakira deituta, saio baterako edo gehiagorako nahi den esanez. Hori bai, taldeko zortzi lagun onartuko dira eta, gehienez jota, bi talde egin ahal izango dira zapatuero: 17:00etatik 17:50era eta 18:00etatik 18:50era. Animo eta joan uda prestatzen!

## Mendiko eski ikastaroak hurrengo hiru asteburuetan



Gipuzkoako Mendi Federazioak mendiko ikastaroak antolatzen jarraitzen du eta, sasoi honetan, gehienbat eskiarekin lotutakoei egin diete tokia. Horrela, bihar eta etzi egingo den mendiko eski ikastaroari hurrengo asteburuan 16 eta 25 urte arteko gazteei eskainitakoak jarraituko dio. Zapatu eta domekarako prezioa 19,25 eurokoa izango da (16 eta

21 urte arteko federatuentzat), 55 euro 21 eta 25 urte arteko federatuentzat eta 72,5 ez federatuentzat. Eta hurrengo asteburuan, martxoaren 5ean eta 6an, elur mota guztiak jais-teko tekniken ikastaroa egingo da Baqueira-Beret-en. Izena emateko epea zabalik dago eta informazio gehiago honako helbideetan: [www.gmf-fgm.org](http://www.gmf-fgm.org) eta [gmf-administrazioa@kirolak.net](mailto:gmf-administrazioa@kirolak.net).



## Xalaren agurra eta Martijaren debuta domekan Katedralean

Egun berezia biziko da domeka arratsaldean Astelena frontoian. 17:00etan hasiko den jaialdian, Yves Xala Lekuineko ezkerak agur esango dio pilota profesionalari Hegoaldeko frontoi batean, geroago Iparraldean ere omenaldia egingo baitiote beste frontoi batean. Aspetu enpresakoaren debuta Astelena izan zen moduan, agur ere bere frontoi gogokoenean egingo du Xalak, oraingoan gainera Martija debutariari laguntzen. Jaialdiaren lehenengo partidua jokatu du bikote horrek Jaunarena eta Cecilioaren aurka. Partidu nagusian, bestalde, 1. mailako binakako txapelketako neurketa izango da, Bengoetxea VI.a eta Untoria Martinez de Irujo eta Rezustaren kontrakoa. Eta, jaialdiarekin amaiezko, promozio binakakako txapelketako partiduan, Gorka-Tolosa eta Elordi-Irusta bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Sarrrerak honako telefono zenbakian lortu daitezke: 666-259-009 (Olaya).

## Fomentoren aurka xakean

Klub Deportiboko lehen taldeak maila goreneko liderra bisitatuko du bihar ligako zazpigarren jardunaldian. Neurketa zaila izango dute eibartarrek Errenterian, baina denboraldi bikaina dihardute egiten eta azken asteburuan, esaterako, 3-1 irabaziz Gros D taldeari. Kontrako bidean doa eibartarren bigarren taldea, azken jardunaldian ere galzaile (3-1) eta, horregatik, garrantzi handia hartu du bihar Deporren jokatu duen neurketak.

# etakitto.eus

etakitto.eus



Badakizu [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunean

**Euskara Elkartearen** jardueretan izena eman dezakezula?



**RAMON AGIRRE**  
(aktorea)

**- Zein da René, Gustav eta Fernanden istorioa?**

Hiru protagonistak Frantzia Bigarren Mundu Gerran aritutako militarrek dira, baina orain, gerrako ondorioak jasan dituzten soldaduen zahar-egoitza batean daude; bata erren, bestea metraila zati bat buruan sartuta, eta azkenik ni, Gustav, agorafobiarekin, neure arazoetatik irten ezinda. Hika mikan, gerra garaiak gogoratuz... Heriotzaren zain daude zahar etxean, hori baita haien hurrengo geltokia. Baina bat-batean egoitza ihes egitea bururatzen zaio Gustavi, gerrako espedizio bat izango balitz bezala. Nora eta Indotxinara! Beste biek ere bazuten ihes egiteko desira hori eta baiezkoa ematen diote proposamenari. Esan dai-teke heriotzari egiten diotela ihes; bada-

kite bertan geratuz gero zein izango den haien istorioaren bukaera. Zahartzaroan haurtzaroa berriz etortzen omen da eta hauek ere umeen portaera hartzen dute. Zalantzarik gabe xelebrea da ihesaldia.

**- Nolako izan da gainerako aktoreekin lan egitea?**

Kandido Urangak, Jose Ramon Sorozek eta nik urte asko daramatzagu honetan lanean eta maiz gurutzatu dira gure bideak. Sarritan egin dugu lan elkarrekin eta ongi ezagutzen dugu bakoitzaren jarduteko modua. Bakoitzak bere estiloa du baina erraza izan da.

**- Zein uste duzu izango dela publikoaren erantzuna?**

Bakoitzak modu batean biziko du obra hau, adinaren arabera edo gaiarekiko

## "Ikusleengan samurtasuna sortzen duen antzezlan da"

Ramon Agirre aktore donostiarak *Heroiak* antzezlan taularatuko du Jose Ramon Sorozek eta Kandido Uranga aktoreekin batera, Eibarko Antzerki Jardunaldietan. Gérald Sibleyrasen lanak 2006ko Komedia Berria hoberenaren aipamena jaso zuen Laurence Olivier Sarietan. Coliseora Txalo Produzio taldearen eskutik dator, Begoña Bilbaok zuzenduta. Antzezlan ikusteko aukera otsailaren 22an izango da, 22:30ean.



hurbiltasunaren arabera. Baina nork ez dauka amona edo aitona bat zahar-etxeren batean? Nori ez zaio adineko pertsona bat zaintzea tokatu? Azken finean edonorentzako gaia da. Bizitzaren azken etapa hau edozeinek ulertuko du. Dena den, ikusle guztiengan samurtasuna sortzen duen antzezlan dela uste dut. Umore klabean baina maitasun handiz egindakoa eta irribarrez ikusteko obra da.

## Lehiaketako saridunari oparia

Aurreko asteko eguen arratsaldean jaso zuen saria ...eta kitto! aldizkariaren Aratoste lehiaketako saridunak: argazkian ikusten duzuen Naia Carballok kamiseta bi eraman zituen jaietan gehien gustatu zitzaion tabernaren alde botua eman eta gero, bozkatu zuten guztien artean egindako zozketan sariduna izatea suertatu zitzaion eta. Zorionak!



## Paperarekin artea sortzen

Dabeiba Valenzuelaren erakusketa dago ikusgai Untzagako jubilatutako etxean. Artistak egunkari eta aldizkarietako orriak erabilia sortu dituen apaingarri eta bestelako objektuekin osatu du erakusketa, horrela kontsumismoa nagusi den gure garairako birziklatzearen aldeko aldarria eginez. Hilaren 26ra arte egongo da zabalik, asteburuetan 12:00etatik 14:00etara eta astelehen, martitzen, eguen eta barixakuetan, berriz, 19:15etik 21:15era (eguztetenetan itxita egongo da).



Leire Iturbe

## Piano ikasleak Andoainera

Astebururako ondo baino hobeto prestatu direla argi erakutsi zuten piano ikasle gazteek aurreko domekan Coliseoan eman zuten kontzertuan. Bihar eta etzi etxetik kanpora, 11. Andoaingo Piano Jaialdian jardungo dute, Bastero Kulturunean, probintzia osotik joandako pianojoleekin batera.



## Gorka Larrañaga Portalean

Gaur arratsaldean zabalduko du "06/16" erakusketa Gorka Larrañagak, Portalean. Azkoitian jaiotako artista plastikoak hainbat urtez jardun zuen Eibarko Udal Dibujo Eskolan klaseak ematen, 2006an Mexikora joan aurretik eta, handik bueltan, azken hamar urteotan Mexikon sortu dituen hainbat lan ipiniko ditu ikusgai gaurtik aurrera bisitatzeko moduan izango den erakusketan. Martxoaren 20ra arte egongo da ikustera joateko aukera, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.

## Guraso ugari lehen sorospenen hitzaldian

Umeekin gerta daitezkeen larrialdi-kasuei aurre egiten ikasteko ...eta kitto!-k martitzenean antolatutako zuzen hitzaldira guraso asko gerturatu ziren. Nere Arostegi eta Erkuden Abascal pediatrik eta Carmen Zendoia pediatria-erizainak eman zituzten azalpenak, eta hainbat gai jorratu zituzten: erredurak, kolpeak, itoaldiak, konbultsioak... Azalpenak entzuteaz gainera, gurasoek, ariketa praktikoak egiteko aukera ere izan zuten.



erredurak, kolpeak, itoaldiak, konbultsioak... Azalpenak entzuteaz gainera, gurasoek, ariketa praktikoak egiteko aukera ere izan zuten.



Leire Iturbe

## Giza-irudiak euripean

Aurreko barixakuan egun osoan euria etenbarik botatzen ibili arren, giza-irudiei bizia ematen dieten aktoreak ez ziren horregatik kikildu eta, urteroko hitzorduari kale egin barik, beste batzuetan egindakori jarraituta euripean Untzagan erakustaldia eskaini zuten berdin-berdin, horrela 39. Eibarko Antzerki Jardunaldietako egitaraua zabaldua.



## Tor magoaren ikuskizuna domekan

Domekan Tor magoaren ikuskizuna izango dugu ...eta kitto!-n (Urkizu 11, solairuartera), goizeko 11.30ean. Guraso eta seme-alabentzat ikuskizuna izango da, eta doakoa. Domeka goiza epeletan eta giro euskaldun eta zoragarrian pasatzeko aukera paregabea.



## Eibartarrak Mus Txapelketarako kanporaketan

Euskal Herriko VIII. Mus Txapelketako bigarren fasea asteburuan, bihar burutuko da, zazpi herrialdeetan jokatu diren kanporaketekin. Horieta herri mailako fasea gainditu eta herrialdera igaro diren bikoteek jardungo dute eta tartean Eibarko bi bikote izango dira: Ion Altuna eta Iñigo Guruzeta; eta Jon Zubizarreta eta losu Plazaola. Gipuzkoako kanporaketa Alegiako Kultur Etxean jokatu da, 15:00etan hasita.



## Xaboi-ikastarorako izen-ematea

Xaboi naturalak egiten ikasteko kurtsua antolatuko du...eta kitto! Euskara Elkarteak, Ilunabarrian programaren barruan, martxoaren 1 eta 2rako. Xaboi Punpuilak taldekoek emango dute ikastaroa eta saio bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du, 19:00etatik 20:30ak arte. Bi saioetan parte hartzeak 3 euro balio du eta izen-emateko epea zabalik dago (otsailaren 26ra arte, ...eta kitto!-n, 943200918 telefonoan edo etakitto.eus helbidean).



EKHI BELAR

## Hedabideen txotxongiloak

Antzerki Jardunaldiak gurera heldu direnerako antzerki saio handia jasan dugu txotxongiloen aferarekin. Penagarria hedabideetan ikusi den ikuskizuna. Salagarria gaur eguneko gizartean dagoen antzokirik handienean gertatzen dena. Etenik ez duen makineria da. Minuturo informatzen, iritzia sortzen, gizartea maneiatzen. Gure kabuz pentsatzen dugu? Zalantzak dauzkat. Zeren gainean pentsatzen dugu egunero begien aurrean jartzen dizkiguten gaietan ez bada? Uxatu ditzagun konspirazio iluminatiak, baina ezin dugu ukatu hedabideek gudan duten boterea. Paradojikoia da inoiz baino informazio gehien eskura daukagun sasoiak hedabideek masak kontrolatzeko duten gaitasuna. Toki ezberdinetatik tonaka berri iristen zaizkigu, baina mezua homogenea da. Eta heltzen ez zaiguna? Hedabideetan agertzen ez dena ez da existituko guretzat. Masa inozoa da? Ez, baina alienatua dago, lanpetuta, eta ezin du informazio guztia digeritu eta aztertu. Errefuxiatuak. Katalunia. ISIS. Foballa, foballa. Korrupzioa. Gogoratzen Ayotzinapako 43ak? Eta Yemeneko gerra? Ah, ez, hori ez digute kontatu. Adi Ipar Korea, Kuba eta Venezuelarekin. Erosi hau, erosi hura. Neska, polita egon. Zu gizona izan! Eta Eibarren gola! Rajoyren eskua, Sanchezen aurpegia, Iglesiasen ilea, Riveraren sudurra. ETA. Eta gero zer? Hedabideetako adituek esango dizute zer pentsatu. Denetarik dakite. Eurak bai aktore onak antzerki honetan.

## 39. ANTZERKI JARDUNALDIAK

### "La boda de Betty Blue" (GLU GLU PRODUCCIONES)

Otsailaren 19an, barixakuan, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)



**Antzezleak:** Justi Larrañaga, Leyre Berrocal

**Zuzendaria:** Galder Perez

David Barberoren lan hau ideia honetatik sortzen da: gauzak ez dira diren bezalakoak nahitaez izan behar, norberak aldatu ditzakeelako. Neurri gabeko pertsonaia eta argumentuan oinarritutako komedia honen helburu nagusia ikusleak disfrutatuz deitzen da. Intrigaren asmoa da ikuslea adi izatea, lehen eszenako lehen minutuan ezagutzen dugun heriotzaren errudunaren aurkikuntzan murgilduta egongo baikara antzezlari osoan. Horko giza kritikak gure kontzientzia zirikatuko du.

### "El verdugo" (CARRO DE THESPIS)

Otsailaren 20an, zapatuan, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan (90 minutu)

**Antzezleak:** Eugenio Cabrejas, Javier Fernandez, ...

**Zuzendaria:** Esther Lopez Sobrado

Orain 50 urte Rafael Azconak eta Luis Garcia Berlangak idatzitako zinema gidoi zoragarrian oinarritutako antzezlari honetan ehorztxe bateko langile baten gorabeherak kontatzen dira. Protagonistak jubilatzean dagoen espetxe funtzionarioa ezagutuko du eta honen alabarekin maitemindu eta berehala ezkonduko da, ondoren berrero bihurtzeko. Lan honekin Carro de Thespis-ek Haron egiten den *Certamen Nacional de Teatro Aficionado Garnacha de Rioja* lehiaketan jaso du saria.



### "Heroiak" (TXALO PRODUKZIOAK)

Otsailaren 22an, astelehenean, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)



**Antzezleak:** Jose Ramon Soroiz, Kandido Uranga, R. Agirre

**Zuzendaria:** Begoña Bilbao Lejarregi

Txalok eskaintzen digun Gérald Sibleyrasen komediak 2006ko Komedia Berria hoberearen aipamena jaso zuen Laurence Olivier Sarietan eta, horrez gain, estreinatua den antzoki guztietan ikusleko eta kritikaren oniritzia jaso izan du. Argumentuan Lehen Mundu Gerrateko hiru soldadu beterrano aurkituko ditugu asper-asper eginda ospitale militar batean. Hiru antzezle handiek irribarre eta barre algaraz hornitutako bizipena eskainiko digute, hitz-jario biziak jantzitako bizitzari buruzko hausnarketarekin.

### "Distancia siete minutos" (TITZINA)

Otsailaren 23an, martitzenean, 20:30ean, Coliseoan (80 minutu)

**Antzezleak:** Diego Lorca, Pako Merino

**Zuzendaria:** D. Lorca, P. Merino

Bi artistek sortutako lan-taldeak transmititzeko duen ahalmenera esker, Titzina konpainia "bakartzat" kontsideratua dago gure inguruko egungo antzerkigintzan. Lan honetan epaile gazte bat termitak jotako etxea laga beharrean aurkitzen da; horregatik, gurasoengana itzuli beharko da. Horri jarraituz, zorientasunak, patuak edo justiziak pertsona desberdinetan duten eragina ikusi ahal izango da antzezle biek maisuki bizia emango dieten pertsonaia guztietan. Emanaldi hau galtzea huts-egitea da.



### "Zic-Zag"

(JOSEPH COLLARD)

Otsailaren 26an, barixakuan, 20:30ean, Hezkuntza Esparruan (75 minutu)



## Ruper, martxoaren 6an Elgetan

Martxoaren 6an (domekan) 19:00etatik aurrera Ruper Ordorikak emanaldia eskainiko du, bakarka, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Sarrerak aldeztu aurretik erosteko aukera dago, Espaloian eta Bergarako Pol Pol tabernan.




## Animal Blues, lan berriarekin Ermuan

Bihar 20:00etan Animal Blues taldeak "Nabarduran dago gakoa" disko berria aurkeztuko du Ermuan, Lobiano kultur etxean. Juanma Urrizak (bateria), Kike Arzak (baxua), Alejandro Mingotek (gitarra, lap steel-a) eta Jaime Alvalarelosek (gitarra eta ahotsa) osatzen dute taldea. Musikeren (Euskal Herriko goimailako musika ikastegian) elkar ezagutu zutela hamar urte baino gehiago dira eta harrez gero elkarrekin jardun dute proiektu batean baino gehiagotan.

## Durungaldeko Txistulariak

Aurten Durungaldeko Txistulari Eguna Ermuan ospatuko da, martxoaren 19an, 13:00etatik aurrera Orbe kardinalaren plazan eta parte hartuko dutenen artean, besteak beste, Eibarko txistulariak izango dira. Gainera, ekitaldia zuzentzen Ermuko Alboka Musika Eskolako irakaslea den Enrike Montero eibartarrak jardungo du. Durungaldeko txistulariekin batera Ermuko Txindurri dantza taldeak, Alboka Musika Eskolako Pispillu abesbatzak, metalek eta perkusio-joleek ere hartuko dute parte eta Alejandro Zubizarreta eta Emilio Pradera txistulari ermuarak omenduko dituzte.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Manuel Jose Amesti Lamarain. 59 urte. 2016-II-5.
- Francisca Juaristi Lizundia. 86 urte. 2016-II-11.
- Ramona Urdangarin Zurutuza. 84 urte. 2016-II-12.
- Concepcion Eugenia Laskurain Ezeolaza. 92 urte. 2016-II-12.
- Javier Leturiondo Kortabarria. 78 urte. 2016-II-13.
- Jose Luis Mtnez. de Musitu Mtnez. de Albeniz. 55 urte. 2016-II-13.
- Javier Jauregi Atxa-Albizuri. 69 urte. 2016-II-13.
- Elena Vide Fidalgo. 83 urte. 2016-II-13.
- Salvador Murgiondo Ortiz. 88 urte. 2016-II-15.
- M<sup>a</sup> Carmen Etxepare Altimas. 71 urte. 2016-II-15.
- Pello Orbea Garate. 54 urte. 2016-II-17.

## jaiotakoak

- Rania Oumeziane. 2016-II-5.
- Jon Arias Toledo. 2016-II-8.
- Niko Diez Martin. 2016-II-10.
- Martin Gonzalez Fernandez-Reyes. 2016-II-12.
- Suhar Jauregi Ulazia. 2016-II-16.

## farmaziak

- Barixakua 19  
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)  
Zapatua 20  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)  
Domeka 21  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)  
Astelehena 22  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)  
Martitzena 23  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)  
Eguaztena 24  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)  
Eguena 25  
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)  
Barixakua 26  
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2016AN-  
Iraundegi (Calbeton, 19)

## SUDOKUA

7				3	2	
	6	4		8		
	3	2		5	8	
		2			3	
3	4			5		9
	9			6		
	7	3		2	9	
		6		2	1	
8		7				6

6	5	3	8	4	2	1	9	7
4	2	7	6	9	1	5	8	3
8	1	9	5	7	3	6	4	2
7	8	1	3	5	4	2	6	9
3	4	2	7	6	9	8	5	1
9	6	5	1	2	8	7	3	4
1	7	8	9	3	6	4	2	5
2	9	6	4	1	5	3	7	8
5	3	4	2	8	7	9	1	6

AURREKOAREN  
EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

## Barixakua 19

### GAZTELEKUA

**16:30.** EibarKlik  
Lehiaketaren 2. argazkia  
argitaratzea eta Disparatea.  
**18:00.** "WhatsART"  
ekimena azaltzeko bilera.  
Indianokua gaztelekuan.

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30.** "La boda de Betty  
Blue" (Glu Glu Prod.).  
12 euro. Coliseoan.

## Zapatua 20

### KARTZELETARA MARTXA

**08:15.** Logroñoeko  
espetxera joateko  
autobusaren irteera-ordua.  
Ego Gainetik.

### BIHARRIAN

**10:00-14:00 & 16:00-  
20:00.** Egurrezko  
tipografiekin ikastaroa,  
"La familia Plomez"-en  
eskutik. (Ubitxa 16-18an).

### ASTELENA HAUR PARKEA

**11:00-14:00 & 16:30-  
20:30.** 2-12 urte bitarteko  
umeentzat. 3 euro.  
Astelena frontoian.

### 1941-EAN JAIOTAKOAK

**13:00.** Untzagan elkartu,  
talde argazkia egin eta  
txikiteoa.

**14:30.** Bazkaria, Unzaga  
Plaza hotolean. Ondoren,  
dantzaldia. 75 urte egiten  
duten guztiei opari bana  
emango zaie.

### PLAZAN JOKUAK

**17:00-19:00.** Multikirol  
pista berriak estrenatzeko.  
Zezen-plazan.

### ESKULANAK

**18:00.** "Construye en 3D".  
El Corte Ingles-ean..

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30.** "El verdugo" (Carro  
de Thespis, unibertsitariao).  
5 euro. Hezkuntza  
Esparruan.

## Domeka 21

### MAGIA IKUSKIZUNA

**11:30.** Tor magoa, guraso  
eta seme-alabentzat.  
Sarrera librea. ...eta kitto!  
Euskara Elkartean.

### KONTZERTUA

**12:30.** Cielito Musika  
Banda. Coliseoan.

### GAZTELEKUA

**17:00.** Play. Indianokuan.

## Astelehena 22

### IKASTEN

**10:00.** "Telefono  
mugikorraren erabileraren  
hasiera" tekno-foruma.  
Untzagako jubilatutuek.

### CARE-REN BILKETA

**11:00-13:00.** Errefuxiatuei  
bidaltzeko material bilketa,  
Errefuxiatuei Laguntzeko  
Eibarko Taldearen eskutik.  
(Argatxa, 5ac).

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30.** "Heroiak" (Txalo  
Produksioak). 12 euro.  
Coliseoan.

## Martitzena 23

### IKASTEN

**10:00.** "Nobela" hitzaldia,  
Jose Domingoren eskutik.  
Untzagako jubilatutuek.

### IKASTEN

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Jostintza-tailerra.  
Portalean.

### CARE-REN BILKETA

**17:00-20:00.** Errefuxiatuei  
bidaltzeko material bilketa,  
Errefuxiatuei Laguntzeko  
Eibarko Taldearen eskutik.  
(Argatxa, 5ac).

### GURASOAK MARTXAN

**18:30.** "Las relaciones  
entre compañeros/as"  
(ikaskideen arteko  
hartu-emanak) hitzaldia.  
Portalean.

### ANTZERKI JARDUNALDIK

**20:30.** "Distancia siete  
minutos" (Titzina Teatro).  
12 euro. Coliseoan.

## Eguaztena 24

### IKASTEN

**10:00.** Mendi-ibilaldia:  
Aretxabaleta-Urkulu  
(bazkaria eraman).  
Autobusaren irteera-ordua,  
Ego Gainetik (10.12ean  
Bidebarrietatik).

### CARE-REN BILKETA

**17:00-20:00.** Errefuxiatuei  
bidaltzeko material bilketa,  
Errefuxiatuei Laguntzeko  
Eibarko Taldearen eskutik.  
(Argatxa, 5ac).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren  
entsegua. San Andres  
elizako lokaletan.

## Eguena 25

### IKASTEN

**10:00.** "Nobela" hitzaldia,  
Jose Domingoren eskutik.  
Untzagako jubilatutuek.

### CARE-REN BILKETA

**17:00-20:00.** Errefuxiatuei  
bidaltzeko material bilketa,  
Errefuxiatuei Laguntzeko  
Eibarko Taldearen eskutik.  
(Argatxa, 5ac).

### AURKEZPENA

**18:30.** Ana Orozko artista  
eibartarraren "Diseinu  
grafikoa eta industrialia  
Eibarren" argitalpenaren  
aurkezpena.  
Armagingtzaren Museoan.

### PINTXO-POTE TEMATIKOAK

**19:00.** "Negozio txikiak  
sare sozialen junglan",  
Ekinguneraren eskutik.  
Arrate Kultur Elkartean.

### BILERA IREKIA

**19:00.** Kaleratzeak Stop  
Debarrenarena.  
Portalean (3. solairuan).

### KALEETAN KANTUZ

**19:30.** Abesbatzaren  
entsegua. San Andres  
elizako lokaletan.

## erakusketak

Otsailaren 26ra arte

**Dabeiba Valenzuelaren "Reciclaje en la época del  
consumismo"** erakusketa. *Untzagako jubilatutuek.*

Otsailaren 28ra arte

**"Palestinako emakume errefuxiatuen bidai luzea".**  
*Portalean.*

Otsailaren 29ra arte

**"La dama de rojo" Rafael Garcia Hernandezen** argazki-  
erakusketa. *El Ambigú-n.*

**"Cabo Verde" Jose Luis Irigoien**en argazki-erakusketa.  
*Portalea tabernan.*

**Iñaki Campos-en rock-talde**en argazki-erakusketa. *Ez Dok  
tabernan.*

Martxoaren 20ra arte

**Gorka Larrañagaren "06/16"** erakusketa. *Portalean.*

## ikastaroak/lehiaketak

Otsailaren 21era arte

**Euskarazko Piropo Lehiaketa.** *Liburutegian, Udala  
Euskaltegian eta AEK-n.*

Otsailaren 22tik martxoaren 16ra arte

**Photoshop CS6 argazki ikastaroa.** J.A. Palacios. *Deborren.*

Otsailak 23, martxoak 22, apirilak 31 eta ekainak 28

**"Psikosintea, integrazio proposamena".** *Portalean.*

Martxoaren 7ra arte

**XXII. Ipurterre ipuin eta gutun lehiaketa.** *Ikastetxeetan.*

Martxoaren 9ra arte

**XIX. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.** *Arrate Kultur Elkartean.*




Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, ANE Garcia Murgoitio, hillaen 16xan hiru urte bete zenduaz-eta. Laztan potolo bat etxekuen partez.



Ongi etorri, BRUNO Martinez Goicoechea, hillaen 13an gure artera etorri zifialako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UXUE, aurreko domekan urtetxua egin zenduan-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Maialenen partez.



Zorionak, XUBAN Aranzabal Baskaran, gaur zazpi urte bete dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, BEÑAT, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Oso ondo pasa, famelixaren partez. Muxu haundi bat Jokinen partez.



Zorionak, UMA Moreno del Barrio, atzo bi urtetxo bete zittuan-eta etxeko sorgintxuak. Muxu zaparradia etxekuen partez.



Ongi etorri, JON, otsaillaren 8xan jaixo eta pozez bete gaituzulako. Aitxitxa-amama, guarso eta, batez be, CLAUDIaren partez.



Ongi etorri, SUHAR Jauregi Ulazia, hillaen 16tik gure artian zagoz-eta. Zorionak, amatxo EHARI eta aitaxo GORKA.



Zorionak, OSOITZ!!, atzo sei urte bete zenduaz-eta, mutil haundi. Muxu potolo bat Julene eta etxeko guztiaren partez.



Zorionak, LIBE!!!, gure printzesak astelehenian zortzi urte egin zittuan-eta! Muxu pillote bat etxekuen partez.



Zorionak, OIER, astelehenian hiru urte beteko dozuz-eta!!! Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Lierren partez.



Zorionak, OIER (hillaen 14an hiru urte) eta amatxo MARIJOSE (16xan) urtiak bete dozuez-eta. Laztan haundi bana famelixaren eta lagunaren partez.

(2 ARETOAN)  
20an: 19:45

**"Embarazados"**

Zuzendaria:  
Juana Macias



## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)  
20an: 17:00, 19:45, 22:30  
21ean: 17:00, 20.00  
22an: 20:30

**"Carol"**

Zuzendaria: Todd Haynes



(2 ARETOAN)  
20an: 22:30  
21ean: 20.00

**"El Renacido"**

Zuzendaria: A. Gomez-Iñarritu



(ANTZOKIAN)  
20an: 17:00 (2), 19:45, 22:30  
21ean: 17:00 (2), 20.00  
22an: 20:30 (2 aretoan)

**"Deadpool"**


Zuzendaria: Tim Miller



(ANTZOKIAN)  
20an: 17:00  
21ean: 17:00

**"Zootrópolis"**

Zuzendaria: Juana Macias



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisu salgai Eibarren, Jardifieta kalean. 2 logela, egongela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Egoera onean. Tel. 610-715548 eta 680-880140.
- Pisu salgai Elgoibarren. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa, balkoiarekin. Eguzkitsua eta kanpora begira. Egoera onean eta merke. Tel. 685-753453 eta 656-728618.

### 1.2. Errentan

- Eibarko neska bik pisua hartuko lukete alokairuan. Tel. 605-759774 eta 677-108554.
- Pisu edo logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-377921.
- Pisu alokagai Eibarren. Jantzita, dena kanpora begira eta oso egoera onean. Tel. 677-865362. Alex.
- Pisu txikia (buhardila antzekoa) hartuko nuke alokairuan Erreal-Urkizu inguruan. Tel. 631-098995.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

- Toyota Avensis familiarra salgai. 162.500 km. 2004an matrikulatuta. 3.500 euro. Tel. 696-817026. Nerea.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Taberna traspasatzen da Eibarren. Prezio onean. Tel. 628-235319.
- Garajea itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.

### 3.2. Errentan

- Martxan dagoen ileapaindegia alokagai Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak (baita gauzez ere) zaintzeko, pegorak garbitzeko, etabar. Tel. 688-959575.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-562380.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-065826.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Tel. 632-506715.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-127294 eta 672-867999.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 604-331053.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-356453.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako (pegorak, enpresak...). Tel. 620-172543.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako. Ordutegi zabalak. Tel. 679-910991.
- Neska eskaintzen da 13:00etatik aurrera garbiketara lanak egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 620-757528.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 633-357538.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 631-995976.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko garbitzeko. Tel. 656-866255.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-337083.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 631-425686.
- Emakumea eskaintzen da pegorak garbitu eta umeak edo nagusiak (baita gauzez ere) zaintzeko. Tel. 632-771519.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-748977.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egin eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-454417.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 627-892991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-291645.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 658-458061.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 637-071779.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaindu eta lan egiteko. Erreferentziak. Tel. 632-573554.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 672-620027.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 678-201477.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 686-561811.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 692-588524.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabalak. Tel. 631-377421.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 682-277198.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 697-754174.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-408528.
- Neska eskaintzen da interna edo orduka lan egiteko. Gidatzeko baimenarekin eta berehala hasteko moduan. Tel. 689-571882.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 655-094780.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketara lanetarako. Tel. 629-868572.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanetarako. Esperientzia. Tel. 658-273486.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketara lanetarako. Esperientzia. Tel. 631-343232.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egin eta dendarri jarduteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegitan. Tel. 628-738472 eta 632-143239.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 608-376387.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaindu, etxeko lanak egin etabarretarako. Tel. 688-710595.
- Gizona eskaintzen da karnoiari moduan. CAP baimena eta C mailako karnetarekin. Tel. 603-066671.
- Emakumea eskaintzen da era guztiarako garbiketara lanak egiteko. Tel. 628-223441.

## 4.2. Langile bila

- Euskalduna behar da asteburuetan barran Eibarko jateke batean lan egiteko. Bidali curriculum-a argazkiarekin 46 postakutxatilara.
- Pertsona behar da interna asteburuetan bi nagusi zaintzeko. Deitu 14:00etatik 16:00etara. Tel. 657-799808.
- Pertsona bat behar da asteburuetan eta jaiegunetan Eibarko taberna batean lan egiteko. Tel. 650-409249.
- Neska behar da Arroan interna. Tel. 653-569293. Lourdes.
- Spinning irakaslea behar da. Tel. 618-272877.
- Langile euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskakerak

- Irakaslea behar da Eibarko akademia batean unibertsitate mailako Algebra, Kalkulo eta barreko klaseak emateko. Tel. 679-560138.

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako Matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.
- Klase partikularrik emango nizkieke DBHko eta Batxilergoko ikasleei euren etxean. Tel. 672-382451.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematika etabar ematen dut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Sehaska salgai, koltxoarekin. Ia berria. Tel. 687-675484. Arantxa.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Betaurreko graduatuak (estutxearekin) galdu nituen aurreko barixkuan, 23.30ak aldiari, Isasiko eskilaretatik Slow tabernara arteko tartea. Tel. 695-379921.
- Txamarra beltza galdu nuen aurreko astelehenean (urtarrilaren 25ean) T. Etxebarria eta Estaziño kalean artean. Poltsa baten barruan zegoen. Tel. 690-311429.

### 6.4. Bestelakoak

- Jazz-gitarra ikasten nabil nire kabuz. Lagun bat nahi dut (gitarra edo beste instrumenturen bat) elkarrekin ikasteko. Tel. 649-088883.

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eu

# HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu deitu 943-206776 telefono zenbakira

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

[www.multiservicioeibar.com](http://www.multiservicioeibar.com) Barrena, 21-1.F



**TREJO  
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

*Garbiketa eta  
mantenimendua*

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

## ITURGINTZA

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSGRÖHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egiguntarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**

TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**

[info@cristaleriaacha.com](mailto:info@cristaleriaacha.com) ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES  
**AIXA**  
José Luis Iriondo

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etxerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 [bagliettoeibar@kaixo.com](mailto:bagliettoeibar@kaixo.com)

**MALVAR**  
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**  
PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOko  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
[victor-fraiz@hotmail.com](mailto:victor-fraiz@hotmail.com)



# IRAZABAL

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Dokorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren  
osasunaz arduratzen garelako**

**Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu**

**f Facebooken:** Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)